

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren 85/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baita hautaprobetarako deialdia egitea Administrazio Bereziko Eskalan, Teknikarien Azpieskalean; espezialitateak: Arkitektura Teknikoa; Industria-Ingeniari Teknikoa, Erizaintzako diplomaduna eta Su-itzaltze Zerbitzuko Ikuskatzaileordea.

Jarraibide gisa harturik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 34.1.g) eta 39. artikuluetan Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 27.3.a) artikuluari dagokionez xedatzen dena, Ahalduen Nagusiari dagokio karrerako funtzionarioak hautatzeko deialdia eta oinarriak onestea.

Hori dela-eta, aipatutako arau horietan jasotako ahalmenak aplikatuz eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta, hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: 2019ko lehen lan-eskaintza publikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 9ko erabakiaren bidez (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 71 zenbakia, apirilaren 11koa), besteak beste, plaza hauek jasotzen dira: sei (6) plaza administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikariak, espezialitatea: arkitektura teknikoa; erizaintzako diplomadun plaza bi (2); zortzi (8) plaza industri-ingeniaria teknikoa. Bestalde, 2019ko bigarren lan-eskaintza publikoa onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 3ko erabakiaren bidez (2019ko 234. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, abenduaren 9koa), plaza hauek jasotzen dira: hiru (3) plaza gehiago arkitekto teknikoek eta hiru (3) plaza su-itzaltze zerbitzuko ikuskatzaileordeek, eskala eta azpieskala berean. Bada, adierazitako erabaki bi horietan ezarritakoarekin bat, hautaprobetarako deialdia egiten da, plaza hauek karrerako funtzionarioekin betetzeko:

— Oposizio sistemaren bidez:

- Administrazio bereziko eskala; azpieskala teknikoa; mota: erdi-mailako teknikariak; espezialitatea:
 - Industria-ingeniari teknikoa: zortzi (8) plaza.

— Lehiaketa-oposizioa sistemaren bidez:

- Administrazio bereziko eskala; azpieskala teknikoa; mota: erdi-mailako teknikariak; espezialitatea:
 - Arkitekto teknikoa: bederatzi (9) plaza.
 - Erizaintzako unibertsitate-diplomaduna bi (2) plaza.
 - Su-itzaltze zerbitzuko ikuskatzaileordea: hiru (3) plaza.

Bigarrena: Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta bereziak onestea. Oinarri horiek, jasota gera daitezen, dekretu honi eranskin legez batu zaizkio.

Hirugarrena: Oinarriak argitara daitezen agintzea: oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (www.bizkaia.eus) eta laburpena, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean.



Laugarrena: 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 61.2.a) artikulua araber, Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak emango ditu deialdia tramitatzeke beharrezkoak diren ebazpenak, karrerako funtzionario-izendapena izan ezik, izendapena egitea Foru Aldundiari dagokio-eta, aipaturiko Foru Arauaren 17. artikulua 1. zenbakiko 33. zenbakian ezartzen denaren arabera.

Bilbon, 2020ko ekainaren 12an.

Herri Administrazioako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIOTZAN
SARTZEKO OPOSIZIO BIDEZ HONAKO ESKALA HONETAN****ADMINISTRAZIO BEREZIA****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

1. Oinarri hauen xedea zera da: oposizio sistemaren bidez egingo diren hautaprobetarako arauak ezartzea, deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten diren karrerako funtzionarioen Administrazio Bereziko plazak betetzeko, dagozkion erreserbak eginda.

2. Barne-igoerako txanden erreserbatik datozen izangaiek, dagozkien azterketak gainditzen badituzte, beti izango dute lehentasuna deialdi honetako lanpostu hutsak betetzeko gainerako izangaien aldean.

Barne-igoera arrunteko txandarako erreserbatutako plaza hutsak bete gabe gelditzen badira (inor aurkezten ez delako, inork ez duelako lortzen azterketak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa edo inork ez dituelako betetzen bigarren oinarriko betekizunak), orduan plaza horiek txanda irekian eskainitakoei gehituko zaizkie.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako barne-igoerako plazaren bat bete gabe geratzen bada, barne-igoerako txanda arruntean eskaintzen diren plazei gehituko zaie.

3. Desgaitasuna duten pertsonen txandan aurkezten den izangai batek dagozkion ariketak gainditu bai baina plazarik lortzen ez badu, eta txanda askeko beste izangai batzuek baino puntuazio hobea lortzen badu, puntuazio horrekin sartuko da txanda askean.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako eta betetako plazei deialdiko plaza guztien ehuneko hiru gainditzeko ez badute, bete ez diren plazak hurrengo lan-eskaintza publikoaren ehuneko zazpiko kupoari batuko zaizkio, ehuneko hamarreko gehieneko mugarekin.

4. Nolanahi ere, derrigorrezko hizkuntza-eskakizun jakin bat ezarria duten plazak bete ahal izateko, nahitaezkoa izango da izangaiek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatua izatea deialdiaren oinarrietan ezartzen den eran.

5. Deialdiaren oinarri berezietan beren-beregi aurreikusita egon ezean, epai-mahaiak ezin izango du izendatu deialdiko lanpostuen kopurua baino izangai gehiago, hala ezarria baitago Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, EPOE) onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61. artikuluen 8. zenbakian.

6. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren printzipioarekiko konpromisoa deklaratzeko, printzipio horrek gidatzen baitu langileak Bizkaiko Foru Aldundia-
ren zerbitzupean sartzeko prozedura.

Bigarrena. — Izangaiek bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak

1. Hauek dira:

a) Egoera hauetako bat gertatzea:

— Europar Batasuneko herritarra izatea, bai izangaia edo haren ezkontidea (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), bai izangaiaren ondorengoak edo haren ezkontidearenak (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), baldin eta ondorengook hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, urte gehiago izanik, gurasoen mende bizi badira oraindik.

— Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren barruan egotea, baldin eta hitzarmen horietan langilean zirkulazio-askatasuna ezar badaiteke.

b) Hamasei (16) urte beteta izatea, baina derrigorrezko erretirorako adinik oraindik ez izatea.

c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Ez egotea zerbitzutik kendua, diziplina-espediente bidez, ezein administrazio publikotan nahiz ezein autonomia erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organotan. Halaber, ez izatea, ebazpen judizial bidez, desgaitasun absoluturik edo



berezirik enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ez egotea desgaituta edo pareko egoera batean, eta ez egotea dagokion estatuan baldintza beretan enplegu publikoa betetzea eragozten duen diziplina-zehapenaren mende edo pareko egoera baten mende.

- e) Deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzean titulazio hori eskuratzeko modua izatea. Tituluak atzerrian lortu dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo badutela, behintzat, homologazioaren ziurtagiria.
 - f) Oinarri berezietan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.
2. Barne-igoerarako gordetako plazetara aurkezten diren izangaiek jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezien egoeran egon beharko dute jatorrizko plazan, eta betekizun hauek bete beharko dituzte:
- a) Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario izatea gaur egun dauden eskalarietako batean, lortu nahi duten plazaren azpiko lehen sailkapen-taldeko edo -azpitaldeko plaza batean, edo talde edo azpitalde bereko plaza batean, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.
 - b) Bizkaiko Foru Aldundian karrerako funtzionario legez jatorrizko plazan bi urte beteta izatea.
 - c) Lortu nahi den plaza eskuratzeko eskatzen den titulazioa izatea edo eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea, eskatzen den antzintasuna izatea eta oinarri berezietan eskatzen diren gainerako betekizunak betetzea.
3. Barne-igoeraren bitartez sartzeko, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu batekin onartzen duen 2017ko apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 55. artikularekin bat, baldintza hauek bete beharko dituzte Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko langileek:
- a) Jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan egotea beheragoko berehalako kategorian.
 - b) Kategoria horretan benetan 3 urte beteta edukitzea.
 - c) Hutsegite larri edo oso larri bat dela-eta zigortuta ez egotea, salbu eta ezarritako zigor hori baliogabetzea lortu bada.
4. Desgaitasuna duten pertsonen gordetako plazetara aurkezten direnek %33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua izan behar dute aitortua, eta eskaera aurkezteko unean egiaztatu beharko dute hori. Beraz, hautaketa-prozesuan zehar desgaitasuna desagertu egiten bada edo gutxitu, eta portzentaje horren azpitik geratzen, orduan ofizioz aldatuko da izangai hori txanda askera.
- Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dutela: ezintasun iraunkor oso bat dela-eta pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorra edo desgaitasuna dela-eta erretiro-pentsio bat aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.
5. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskakizun horiek guztiak, bai eta hautaketa-prozesuan zehar ere, harik eta izendapena egin arte. Hala ere, oinarri espezifikoek geroratu egin dezakete baldintza zehatzen baten bete behar izateko unea.

Hirugarrena. — Eskabideak

1. Nola aurkeztu eskabideak

Eskabideak I. eranskinean agertzen den eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira; www.bizkaia.eus web-orrian (lan publikoaren eskaintza) eta Bizkaiko Foru Aldundiko edozein erregistrotan eskuratu daiteke eredu, bai eta herritarrei laguntzeko eskualdeetako bulegoetan ere: Bermeon, Durangon eta Gernikan.



Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek nahikoa izango dute eskaera-orrian euren erantzukizupean adieraztea eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela; horretarako, eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da erreferentzia-data.

Eskaera-orriarekin batera, honako hauek aurkeztuko dira, eta ez besterik:

- a) Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten izangaiek —bitarteko funtzionarioek, esaterako— Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako «Hautaketa-prozesuetarako informazioa ematen duen ziurtagiria» baino ez dute aurkeztu beharko. Izangai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada.

- b) Deialdiaren oinarri berezietan eskatzen den titulua edo egiaztagiri bat ziurtatzen duena izangaia modua duela titulua eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzerako, bai eta deialdiko oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerakoak ere.
- c) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzen duten izangaiek desgaitasunaren ziurtagiria aurkeztu behar dute. Hala ere, ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna aitortua badie. Zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi behar, eta, horretarako, baimena eman behar diote beren-beregi Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiazta dezan.

Hautaketa-prozesuan eskatutako gainerako agiriak hamabigarren oinarrian aipatzen den eran bakarrik aurkez daitezke.

Eskaera-orrian adierazi behar da zein txandatan parte hartu nahi den: a) txanda askea; b) barne-igoera; c) desgaitasuna duten pertsonen txanda edo d) desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoera. Lau txanda horietatik batean baino ezin da parte hartu.

Desgaitasuna duten pertsonen txandetako baten bidez lehiatzen direnek denbora edo/eta baliabiderik egokitzea behar badute, hala adierazi beharko dute, eta horretarako arrazoia azaldu beharko dute.

Eskaera-orriaren 4. atalean, azterketa euskaraz egin nahi den adierazi beharko da.

2. *Eskaera-orriak aurkezteko tokia*

2.1. Eskaera-orriak telematikoki aurkeztuko dira, Aldundiaren web-orrian erabilgarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez: www.bizkaia.eus (lan-eskaintza publikoa). Herritar guztiei sarbidea bermatzeko, Foru Aldundiak aurrez aurreko arretagune bat jarriko du, eta tramitazioak egiteko behar diren baliabide informatikoak jarriko ditu herritarren eskura Laguntza-Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan, Foru Liburutegia-ren beheko solairuan: Diputazio kalea, 7, Bilbo-48008. Eskaera-orriarekin batera, eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da nahitaez, eskaneaturik, hirugarren oinarriaren 1. zenbakian ezarritakoarekin bat.

2.2. Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekue-tan. Eskabidea bulego batera joanda aurkeztea erabakitzen dutenentzat, eta artikulua honetan xedatzen dena betetzeko, sail guztietako erregistroak joko dira erregistro-gaietan laguntzeko bulegotzat.

3. *Eskaera-orriak aurkezteko epea*

Eskaera-orriak hogeita (20) egun balioduneko epearen barruan aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4. *Eskaera-orrietako akatsak*

Eskaera-orriak azaldutako epearen barruan eta eran ez aurkezteak izangaia baztertuta geratzea ekarriko du.



Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat, eskaera-orrietan akatsik egonez gero, iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Foru Aldundiaren iragarki-oholean zein www.bizkaia.eus webgunean (Lan Publikoaren Eskaintza), interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar egun baliodunen epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Laugarrena.— Izangaien onarpena

1. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu eta gero, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak onarturiko, bazterturiko eta uko egin duten izangaien zerrendak onetsiko ditu, Foru Agindu baten bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean (Kale Nagusia, 25, Bilbo) eta Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus web-orrian argitaratuko ditu.

Zerrenda horietan, izangaien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia agertuko dira (aintzat harturik zer ezartzen duen bere zazpigarren xedapen gehigarrian 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak), eta orobat agertuko da, hala dagokionean, izangaiak ez onartzearen arrazoia.

2. Onarturikoen, bazterturikoen eta atzera egindakoen zerrendak onesten dituen Foru Aginduren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko epean, Foru Agindu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Errekurtsoa ez bada ebazten probak egiten diren egunerako, interesdunek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsioa ezetsiz gero.

Bosgarrena.— Epaimahai kalifikatzailearen osaera, eraketa eta jarduna**1. Osaera**

1.1. Izangaien hautaketa epaitu behar duten epaimahaiek kide titullarrak eta ordezkariak izango dituzte, era honetara:

— Epaimahaiburua:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

— Epaimahaikideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako hiru funtzionario.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat.

— Idazkaritza:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

1.2. Epaimahaiak osatzeko orduan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen (aurrerantzean 6/1989 Legea) 31. artikularen 2. zenbakian jasotako espezialitatearen printzipioa bermatuko da, baita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (aurrerantzean 4/2005 Legea) 20. artikularen 4. zenbakian ezarritako ordezkari-tza orekatuarena ere.

1.3. Ezin izango dute epaimahaian parte hartu deialdia argitaratu aurreko bost (5) urteetan hautaketa-prozesuetarako izangaiak prestatzeko zereginetan ibili direnek.

1.4. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu txit presuak izendatuko ditu epaimahaia osatuko duten pertsonak, Foru Agindu bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da haien zerrenda, onarturiko izangaien, bazterturikoen eta atzera egindakoen Foru Aginduekin batera.

1.5. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak pertsona bat izendatuko du epaimahai kalifikatzailean parte hartzeko; horrez gainera, deialdian eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako epaimahaietan parte hartuko duten kideak ere izendatuko ditu.



1.6. Epaimahaiak, edozelan ere, aholkulari espezialistak hartu ahal izango ditu. Hala ere, lankidetzak hori nork bere espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko da.

2. *Abstentzioa eta errekusazioa*

Epaimahaideek uko egin beharko diote parte hartzeari baldin eta Sektore Publikoa-ren araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren egoeretakoren bat gertatzen bada. Halaber, halako inguruabarren bat gertatuz gero, izangaiek kide horien errekusazioa eskatu ahal izango diote Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari.

3. *Eraketa*

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardunean aritu ere, gutxienez epaimahai-burua eta idazkaria —edo haien ordezkioak— eta kideen erdiak bertaratzen ez badira. Idazkaria ez da kontuan hartuko zenbaketa hori egiteko.

4. *Jarduna*

1.1. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik: hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

1.2. Botoen gehiengoz hartuko dira epaimahaiaren erabakiak.

1.3. Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Foru Jauregian izango du epaimahaiak egoitza (Kale Nagusia, 25, 48009-Bilbo).

1.4. Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan eta Epaimahaien Jardunbideari buruzko Eskuliburuan aurrez ikusita ez dauden zalantzak ebazteko, bai eta deialdi hau egoki bideratzeko beharrezko erabakiak hartzeko ere.

1.5. Epaimahaiak nortasuna egiazta dezatela eska diezaieke izangaiei hautaketa-prozesuan zehar, edonoiz.

1.6. Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan zehar, nork bere espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die izangaiei.

1.7. Epaimahaiak hartu beharreko neurriak hartuko ditu konfidentzialtasuna bermatzeko. Azterketak, ahal dela, norenak diren jakin barik zuzenduko dira, ahozko azterketak, jendaurrean irakurri beharreko idatzizko ariketak edo lan praktikoak direnean izan ezik.

1.8. Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

1.9. 39/2015 Legearen 45 b) artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, hautaketa-prozesutik ateratzen diren administrazio-egintzak Bizkaiko Foru Aldundiko iragarki-oholean (Kale Nagusia, 25) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitaratu behar dira; argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezkio dira, eta, beraz, haren ondorio berak izango dituzte.

5. *Kalte-ordainak*

Epaimahaietan parte-hartzea dela eta izandako egonaldiek eta lankidetzek zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea sortuko dute.

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

1. Deialdiaren oinarri espezifikotik ezarritakoarekin bat, oposizio sistema erabiliko da izangaiek hautatzeko, txanda guztietan: askea, desgaitasuna duten pertsonak, barne-igoera arrunta eta desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerakoa. Hautaketa-prozeduretan, praktika-aldi bat edo trebakuntzako ikastaro bat gainditu beharra ezarri ahal izango da, betiere deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.

2. Deialdiaren oinarri espezifikotik aipatutako ariketek osatuko dute oposizioa, eta araudia —hura ezagutzea eskatuko da— deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da. Ariketa guzti-guztiak gainditzeko bakarrik gaindituko dute oposizio fase hau.



3. Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzalea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzalea, berriz, gainerako plazetan. Euskarazko nahitaezko azterketa baztertzalea gainditzeko edo egiten ez duten izangaiek derrigorrezko eskakizun hori ezarrita ez duten gainerako lanpostuetarako hautaketa-prozesuan jarraituko dute; ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu gisa zenbatuko da, hala badagokio.

Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Era berean, ez da ziurtagiri akademikorik aurkeztu behareko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztatze-salbuespenen kasuan, baldin eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

Hala ere, 47/2012 Dekretuan jasota egon arren Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri ez diren egiaztatze-salbuespenetan ezingo da baliatu aukera hori, eta kasuan-kasuan dagokion ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira.

Behar diren egiaztapenak egin ahal izateko, interesdunak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari beraren ziurtagiriak edo salbuespenak erregistro horretan begira ditzan.

Nolanahi ere, interesdunak aukera du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan bere datuak kontsultatzeko, honako esteka honetan: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

Zazpigarrena. — Hautaprobei hasiera eta garapena

1. Onartutakoen, baztertutakoen eta uko egin dutenen zerrendak onesten dituen Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren Foru Aginduan adieraziko da zein egunetan, ordutan eta lekutan izango den oposizioa lehen ariketa.

2. Onartutakoen eta baztertutakoen Foru Agindua argitaratzen denetik lehen ariketa egin arte, bi (2) hilabeteko epea utzi behar da, gutxienez.

3. Izangaiek jarduteko hurrenkera Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egindako zozketaren arabera zehaztuko da, Estatuko Administrazio Orokorreko langile izateko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak betetze-ko eta funtzionario horien lanbide-sustapenerako Araudi Orokorra onetsi zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Deialdian ez bada inor zozketan ateratako letraz hasten den deiturarik duenik, alfabetoko hurrengo letren bidez ezarriko da hurrenkera.

5. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei, eta bertaratzen ez direnak baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Errekurtsioa ez bada ebatzen probak egiten diren egunerako, interesdunek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsioa ezetsiz gero.

6. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzen materialak eska ditzakete, beren egoeraren berri emanez Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari, probak egin baino bost egun baliodun lehenago gutxienez.

Arrisku-haurdunaldiaren edo erditzearen kasuan (behar bezala egiaztatu beharko da kasua) izangai batek hautaketa-prozesua ezin badu amaitu edo prozesuko ariketa-
ren bat ezin badu egin, beharrezkoa izango da izangai horrek prozesua amaitzea eta geroraturako faseak gainditzea. Baina faseok ezin dira gehiegi atzeratu, ez, behintzat, gainerako izangaiek zentzuzko garai batean ebazpena jasotzeko duten eskubidea kalte-
tetzeko moduan (epaimahaiak ebaluatuko du noiz den zentzuko garaia). Edonola ere,



hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira fase horiek.

Goian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatzeko, epaimahai kalifikatzaileak egokitu egin ditzake probak egiteko egunak eta/edo lekuak haurdunaldiko arriskua duten, erditzen dauden, edo erditu aurreko edo ondorengo egoeretan dauden emakumeen kasuan, betiere inguruabar horiek proba edo ariketa egin baino lehen jakinarazten bazaizkio epaimahai kalifikatzaileari eta medikua- ren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada egoera hori. Nolanahi ere, hala egokitutako probak aukeratutako pertsonen zerrenda argitaratu baino lehen egin beharko dira.

Proba fisikoak egonez gero, aukera egongo da probok geroratzeko mediku-ziurtagiri batek adierazten duen arte, eta emakume bat praktiketako funtzionario modura aukera- tua izan daiteke, hala badagokio eta gaindituak baditu hautaketa-prozesuko gainerako probak, baina proba fisiko horiek gainditu beharko ditu geroago. Ez badagokio praktike- tako funtzionario izendatua izatea, lan-poltsarako zerrendan sartuko da, puntuazioaren arabera. Probak eta praktika-aldia gaindituta, karrerako funtzionario izendatzeko hauta- tua izan daiteke. Aipatutako proba fisikoak gainditzen ez baditu, baliogabetuta geratuko dira gainerako izangaientzako ariketa egin zen uneaz gero egindako jarduketak.

Haurdunaldia edo erditzea dela-eta izangaiak ezin badu praktika-aldian parte hartu, praktikak lanpostuan egitekoak badira, medikuak baimendutakoan egin ahal izango du, eta, ikastaro batean egitekoak badira, aurrerago egingo ditu, eskala, azpieskala, mota eta kategoria bererako hurrengo ikastaroan.

7. Ariketa bat amaitzen denetik hurrengo hasi arte hirurogeita hamabi (72) ordu igaro beharko dira, gutxienez, eta epe hori, gehienez, berrogeita bost (45) egun baliodu- nekoa izango da.

8. Behin hautaprobak hasita, ez da nahitaezkoa izango hurrengo iragarkiak Bizkai- ko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Foru Aldundiaren iragarki-oholean eta Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitaratuko ditu epaimahaiak iragarkiak, probak hasi bai- no hamabi (12) ordu lehenago gutxienez, baldin eta ariketa bera bada, edo hogeita lau (24) ordu lehenago, beste ariketa bat bada.

9. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dituzte desgaitasuna duten izangaientzat, gainerako parte-hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, betiere egokitzen bidez ariketen edukiari garrantzia kentzen ez ba- zaio edota ariketetan eska daitekeen gaitasun-maila jaisten ez bada.

10. Oposizio-aldiko ariketa bakoitza zuzentzen amaitzean, epaimahaiak jendau- rrean jarriko ditu gainditu dutenen izenak eta kalifikazioak, hala Foru Aldundiaren iragar- ki-oholean nola Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (www.bizkaia.eus). Zerrenda horiek deialdiaren oinarri espezifikotik zehaztutako txandetako bakoitza bereiziz osatuko dira.

- a) Barne-sustapen arrunteko txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerako txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.
- c) Txanda irekiko ariketak gainditu dituzten gainerako izangaien zerrenda bateratua.
- d) Desgaitasuna dutenen txandako ariketak gainditu dituztenen zerrenda.

Zerrenda horiek, euskara-azterketa egin ondoren, bereizita argitaratuko dira, plazek ezarrita duen hizkuntza-eskakizunaren arabera eta plaza bakoitzari ezarritako eskakizu- na nahitaezkoa den edo ez kontuan hartuta.

11. Azken ariketa gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzen denean amaituko da oposizioa.

Zortzigarrena. — Nola tratatuko diren jokabide iruzurgilea eta lehia desleiala

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzeko duen edozein izangai, jokabide horrek edozein proba normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu. Epaimahaiburuak berehala emango dio jarduketan berri Funtzio Publikoaren Zu-



zendaritza Nagusiari, eta bilera-aktan jasoko du zer gertatu den. Halaber, hautaketa-prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili goraxeago aipaturiko printzipioak bermatzea saihesteko erabil daitekeen gailu edo baliabide teknologikorik, eta kasu bakoitzean argitaratzen den jarraibide-orria izango da atal honetan ezarritakoa zehazteko eta garatzeko epaimahaiak erabiliko duen tresna.

Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa-prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan-poltsan.

Bederatzigarrena. — Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

1. Oposizioa

Deialdiaren oinarri espezifikotik adierazi den eran kalifikatuko dira oposizioko ariketak.

2. Azken kalifikazioa

2.1. Hautaprobei azken kalifikazioa oposizioan eta —hala denean— praktika-aldian edo trebakuntzako hautaketa-ikastaroan lortutako puntuazioen batura izango da.

2.2. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 27.2. artikuluan —Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak emandako idazketan— xedatutakoarekin bat etorriz, gaikuntza-berdintasuna gertatuz gero, lehentasuna emakumezkoen emango zaie, emakumezkoen ordezkartza %40tik beherakoa den administrazio kidego, eskala eta kategorietan. Hori hala izango da baldin eta beste izangaiarengan hautematen ez bada sexu-bereizkeriarik eragin gabe aipaturiko neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoirik, hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.

2.3. Goiko paragrafoan xedaturikoaren kalterik gabe, berdinketak berdin jarraitzen badu, adinez nagusiagoa denaren alde ebatziko da. Lan-poltsarako, ordea, adin-irizpidearen aurretik, lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortzeari begiratuko zaio, eta, berdinketa egonez gero, gainerako ariketetan lortutakoari.

Hamargarrena. — Hautatutako zerrenda eta karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena

1. Oposizioko azken ariketa amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutako zerrendak argitaratuko ditu. Zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera egingo dira, eta, bertan, oposizioko ariketa bakoitzaren kalifikazioa nahiz guztira lortutako puntuen batura jasoko dira. Horrez gainera, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena aurkeztuko du epaimahaiak.

2. Lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plaza betetzea, eta, izangaiak hautatzeko orduan, hizkuntza-eskakizunik altuena egiaztatu dutenek izango dute lehentasuna. Hori kontuan hartuta, epaimahaiak hautatutako zerrendak egiteko, lehenik, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendak erabiliko ditu, hizkuntza-eskakizun altuenetik txikinera; ondoren, berdin jardungo du derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendekin. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan ezarritako eran egiaztatu ez duten izangaiak ezin izango dituzte inola ere bete derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plaza.

3. Era berean, EPOE Legearen 61. artikuluen 8. zenbakian ezarritakoa betetzea, epaimahaiak karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen osagarri bat egingo du, honako kasu hauetan erabil dadin: izangaien batek agiriak aurkeztzen ez dituen edo faltsutzen dituen, edo bere plaza jabetzen ez denean, jabetzeari uko egiten dion edo eskatutako baldintzak eta eskakizunak egiaztatzen ez dituen.

4. Hautaketa-prozesu honetako ariketak gaingintzen dituzten izangaien zerrendek bitarteko funtzionarioak izendatzeko balioko dute, bai indarreko arautegian ezarritako kasuetarako.

Hamaikagarrena. — Praktika-aldia eta/edo prestakuntza-ikastaroa

1. Deialdiaren oinarri espezifikotik praktika-aldia eta/edo prestakuntza-ikastaroa egitea aurreikusten denean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 3/1987 Foru Arauarekin bat, Foru Al-



dundiak praktiketako funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatzen dituen izan-gaiak, harik eta deialdian iragartzen diren eta aurrekontu-dotazioa duten plaza guztiak bete arte.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den izendapen-data interesdunei jakinaraziko zaie, eta hiru toki hauetan argitaratuko da: iragarki oholean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko da. (www.bizkaia.eus).

3. Praktiketako funtzionario legez lanpostuaz jabetzeko eguna Administrazioak zehaztuko du.

4. Izendatuak izan direnek praktika-aldia edo prestakuntza-ikastaroa hasi beharko dute. Iragarriko da noiz hasten diren praktika edo ikastarook. Arrazoi justifikaturik gabe praktika-aldian edo prestakuntza-ikastaroan hasten ez badira, praktiketako funtzionarioaren izendapenari uko egiten diotela joko da.

5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, praktiketako funtzionario gisa diharduten bitartean, nolanahi ere, tituludun taldearen oinarritzko lansariak jasoko dituzte eta talde horri emandako lan-izendapenagatik osagarriaren gutxieneko mailaren baliokidea izango dute.

6. Praktiketako funtzionario guztiek batzorde ebaluatzaileak izendatutako tutore bat izango dute, eta haren eginkizuna praktiketako funtzionarioaren jardueren jarraipena eta txostena egitea izango da. Tutore horrek txostena egingo du, deialdiko oinarri espezifikoetan xedatutakoaren arabera. Ebaluazio-prozesua praktika-aldi guztian zehar egingo da. Ebaluazio-batzordeak, txostena ebaluatu, eta, hala badagokio, praktika-aldia gainditu duten pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio epaimahaiari. Epaimahaiak, berriz, Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari igorriko dio, eta hark, azkenik, Foru Aldundiari.

7. Ebaluazio-batzordea epaimahaiaren mende dagoen organo aholku-emaile bat da, Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak Foru Aginduz izendatutako kideez osatua. Batzorde horretako kideek epaimahaikoen abstentzio-eta errekusazio-araubide bera bete beharko dute, eta onartu eta baztertutakoen zerrendarekin batera argitaratuko dira haien izen-abizenak.

8. Prestakuntza-ikastaroak eta/edo praktikaldiak ezin dute 18 hilabete baino gehiago iraun, eta, edozein kasutan ere, izangaiak karrerako funtzionario izendatzen direnean amaituko dira. Deialdian ezarritako kalifikazio-prozesuarekin bat etorritik, ez gainditzeak berez ekarriko du izangaia hautaketa-prozesutik kanpo uztea, bai eta karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galtzea ere.

Hamabigarrena — Agiriak aurkeztea

1. Eskatzen diren agiriak

1.1. Proposatzen diren izangaiak deialdi honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte; zehazki, honako hauek:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Osasuneko Unitatearen ziurtagiria non egiaztatzen den izangaiak baduela dagozkion eginkizunetarako lan-gaitasuna, oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera. Horretarako, hautatuek dagozkien probak eta azterketak egingo dituzte. Proba-azterketak egiteari uko egin ez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.
- b) Izangaiak diziplinazko espediente baten bitartez inolako administrazio publikoren zerbitzutik bereziak izan ez direlako adierazpena; bai eta administrazio publikoaren zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasuneko kasuetako batean ere ez dagoelakoa ere, eta, hala denean, bateragarritasun-eskabidea.
- c) Deialdiaren oinarri berezietan eskatzen diren tituluaren fotokopiak (edo tituluok eskuratzeko ordaindutako eskubideenak) eta gainerako betekizunen fotokopiak, denak behar bezala konpultsatutik.



1.2. Izangairen batek ezin baditu aurkeztu aurreko paragrafoan zehaztutako agiriak, eta behar den moduan justifikatzen badu hori, zuzenbidean onetsitako edozein frogaraz erabiliz egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

2. *Aurkezteko tokia*

Aurreko agiriok Bizkaiko Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko dira (Kale Nagusia, 25, Bilbo-48009).

3. *Aurkezteko epea*

Agiriak aurkezteko, egutegiko hogeita (20) egun balioduneko epea egongo da, izangaien zerrendak jendaurrean jartzen direnetik aurrera.

4. *Salbuespenak*

Funtzionario publikoek ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenean egiaztatu behar izan zituzten baldintza eta betekizunei buruzko agiriak. Atxikita dauden organismoaren ziurtagiria besterik ez dute aurkeztuko, funtzionario-izaera eta haien espedientearen agertzen diren gainerako inguruabarrak egiaztatzeko.

5. *Agiriak ez aurkeztea*

Aparteko arrazoiek eragindako kasuak alde batera utzita, aipatutako epearen barruan agiriak aurkeztu ez dituztenak edo aurkeztu dituzten agiriaren arabera bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatuak izan, eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira. Horrez gainera, eskaera-orraren egindako faltsukeria dela-eta erantzukizuna eskatu ahal izango da. Hala gertatzen bada, hamargarren oinarriaren hirugarren zenbakian aipatutako izendapen osagarriko proposamena egingo da —hurrenkeraren arabera—, deialdiko plaza-kopuruan baliogabetze horren ondorioz sar daitezkeen izangaiak izendatzeko.

Hamahirugarrena. — Karrerako funtzionarioen izendapena

1. *Organo eskuduna*

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 17. artikulua 1. zenbakiaren 33. azpi-zenbakiarekin bat etorriz, Foru Aldundiak epaimahaiak proposatutako izangaiak izendatuko ditu karrerako funtzionario.

2. *Izendapenak jakinaraztea eta argitaratzea*

Izendapenak interesatuei jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-oholean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko dira (www.bizkaia.eus).

Hamalauugarrena. — Plazaz jabetzea

1. *Betekizunak*

Plazaz jabetzeko egintzan bertan beteko da EPOE Legearen 62.1.c) artikuluan ezarritzen den betekizuna.

2. *Epea*

Plazaz jabetzeko epea hilabete (1) izango da, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

3. *Epea luzatzea*

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak lanpostuaz jabetzeko epea luzatu ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, baina inoiz ere adierazitako epearen erdia baino gehiago.

4. *Lanpostuaz ez jabetzea*

Pertsonaren batek oinarri honetako 2. zenbakian adierazitako epearen barruan edo —hala denean— emandako luzapenaren barruan plazaz jabetzen ez bada justifikatuako



arrazoirik eman gabe, lanpostuari uko egin diola ulertuko da. Hala gertatzen bada, hamargarren oinarriaren 3. zenbakian aipatutako izendapen osagarriko proposamena egingo da —hurrenkeraren arabera—, deialdiko plaza kopuruan baliogabetze horren ondorioz sar daitezkeen izangaiak izendatzeko.

Hamabosgarrena. — Destinoen aukeraketa

1. Izangaiek hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean duten hurrenkeraren arabera aukeratuko dute destinoa. Halere, lehentasuna izango dute barne-igoerako txandetatik datozen izangaiek.

2. Horretarako, prozesua amaitutakoan, hautaprobetako ariketa guztiak gainditu dituzten izangai guztiak zerrenda bakarrean argitaratuko dira, bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera antolatuta, zein txandatan parte hartu duten kontuan hartu gabe, barne igoerako txanden bidez parte hartu dutenak izan ezik, horiek euren zerrenda propioa osatuko dute eta.

3. Zerrenda hori egoki antolatzeko, derrigorrezko euskara-ariketak gainditu dituztenei emandako «gai» kalifikazioaren ordezt, deialdiaren oinarri berezietan hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzeagatik ezarritako puntuazioa jasoko da zerrendan.

4. Destinoak aukeratzeko orduan ez da kontuan hartuko izangaiak zer hizkuntza-eskakizunen bidez aukeratuak izan diren, betiere derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak beterik geratzen badira. Izan ere, lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuak betetzea.

5. Hala eta guztiz ere, desgaitasunen bat duten pertsonentzako txanden bidez onartzen direnek destinoa aukeratzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko eskaria egin diezaioke Bizkaiko Foru Aldundiari, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasunak edo antzeko beste arrazoi batzuk emanez. Egoera horiek behar bezala egiaztatu behar dira. Lanpostuak adjudikatzeko eskumena duen organoak aldaketa hori egitea erabakiko du baldin eta behar bezala justifikatuta badago, eta aldaketak ahalik eta eragin txikiena sortu behar du lehentasun-hurrenkeran, desgaitasuna duen pertsonak lanpostua eskuratzeko bestekoa soilik.

Hamaseigarrena. — Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honen ondoriozt, kontratazio-zerrenda bat egingo da deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta, zerrenda hori kudeatzeko, aintzat harturiko dira funtzionarioen hautaketaren arloan indarrean dauden xedapenak eta kontratazio-zerrendak eta lan-poltsak kudeatzeko irizpideak. Horiek guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus webgunean (Lan Eskaintza Publikoa) argitaraturik daude. Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio edo erakunde publiko batzuei utzi ahal izango die kontratazio-zerrenda hori, goraxeago aipaturiko araudiarekin bat. Kontratazio-zerrendak Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegu publikoari buruzko webgunean argitaratuko dira, horrela gardentasuna bermatzeko, eta helburu hori betetzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak bakarrik adieraziko dira.

Hamazazpigarrena. — Kexak eta iradokizunak

Izangaiek kexak eta iradokizunak aurkez ditzakete, edonoiz, www.bizkaia.eus web-orriko «Kexak eta iradokizunak» estekaren bidez (Lan Publikoaren Eskaintza), edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailek Bilbon dituzten erregistro orokorretan nahiz herritarrei laguntzeko eskualde-bulegoetan edo 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarrita dauden tokietan.

ISO 9001:2015 egiaztagiria dela bide, aurkeztutako kexa eta iradokizunak Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuan dagoen kexa eta iradokizunen erregistroan sartuko dira, eta dagokien tratamendua emango zaie.

**AZKEN ARAUAK**

1. Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztirako, honako arau hauek aplikatuko dira: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta lege horiek garatzeko arautegia eta ezarri beharreko gainerako xedapenak, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Epaimahaietarako Eskuliburua.

2. Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Ahaldun Nagusiaren aurrean hilabeteko (1) epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi (2) hilabeteko epean, txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, baina ezin dira errekurtso biak aldi berean jarri.

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

Garrantzizkoa: zehaztasunak idatzi baino lehen irakur itzazu atzeko orrialdeko azalpenak.
Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones al dorso.

1.- Deialdia / Convocatoria

Eskala/Escala		Azpieskala, kategoria, mota/Subescala, categoría, clase	
Sarbideak / Sistemas de acceso		Txanda / Turno	
☐ Lehiaketa ☐ Concurso	☐ Oposaketa ☐ Oposición	☐ Lehiaketa-oposaketa ☐ Concurso-oposición	☐ Askea ☐ Libre
		☐ Barne sustapena ☐ Promoción interna	☐ Pertsona ezinduen barne sustapena ☐ Promoción interna personas con discapacidad

2.- Norberaren Datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido		Bigarren deitura / Segundo Apellido		Izena / Nombre	
NAN-ANZ / DNI-NIE		Jaioteguna / Fecha nacimiento		Sexua / Sexo	
				☐ Emakume / Mujer ☐ Gizon / Hombre	
Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso		PK / C P		Herria / Localidad	
Lurralde / Territorio		1.Mugikorra/Móvil		2.Beste telefonoak/Otros teléfonos	
Posta elektronikoa / Correo electrónico		EGOKITZAPENA		Eskatzen den egokitzapena / Adaptación que se solicita:	
ADAPTACIÓN		☐ Bai / Si ☐ Ez / No		Baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiari nire desgaitasuna egiaztatzeko, eskatutako egokitzapena bideratu ahal izateko (3/2018 Lege Organikaren 8. X.G.), Pertsona batek desgaitasuna ez badauka BFAk aitortuta, desgaitasun hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Autorizo a la Diputación Foral de Bizkaia a comprobar mi condición en orden a tramitar la adaptación solicitada (D.A. 8ª Ley Orgánica 3/2018). Las personas que no se les haya reconocido esta condición por la DFB, deberán aportar documentación acreditativa.	

3.- Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa aurkezten dut / Aporto la siguiente titulación exigida en las bases específicas
Eskatzen diren beste dokumentu batzuk aurkezten ditut (gidatzeko baimena eta bestelakoak) / Aporto otros documentos exigido/s (permiso de conducir y otros)

4.- Euskara

Euskara azterketa eskatzen dut / Solicito examen de euskera	Hurrengo hizkuntz eskakizun egiaztatzen dut / Acredito el siguiente perfil lingüístico
1HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐	1HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐
Baimena ematen diet BFAri eta HAEeri hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateria erabiltzeko eskatzen dut. Hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren arabera egiaztatzen nahi izanez gero, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.	Autorizo a la DFB y al IVAP a su comprobación en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, así como a su mutua comunicación. Quienes pretendan acreditar perfiles lingüísticos al amparo del Decreto 47/2012, deberán aportar la certificación académica correspondiente.
Behanaren izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan esku hartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla bertan adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.	La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.
(tokia / lugar)	(urtea / año)
(hilabetea / mes)	(eguna / día)

Sinadura / Firma

Ahaldun Nagusi jaun txit gorena / Excmo.Sr.Diputado General

☐ Hautaketa-prozesuaren lan-poltsa osatzearren kasuan BFAri baimena ematen diot beste administrazio edo erakunde publiko batzuei nire datuak jakinarazteko, langileak kontratatatzeko dituzten beharrezko kudeaketa-erakunde bakoitzari.	☐ En el supuesto de integrar la bolsa de trabajo del proceso selectivo autorizo a la DFB a comunicar mis datos a otras administraciones o instituciones a los únicos efectos de gestión de sus necesidades de contratación de personal.
Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarriko informazioa: 2016/679 Erregelamendua (UE) eta 3/2018 DPEDBL. ARDURADUNA: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia (BFA). Kale Nagusia, 25 (Bilbo) XEDEA: Hautaketa-prozesuaren eta haren lan-poltsaren kudeaketa, eta langile orlokoa. ESKUBIDEAK: Interesdunak tratamenduen arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuak zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat aurkeztu behar du. Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari zuzendua, toki hauetako batean: Egoitza elektronikoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusia, sailetako erregistro orokorrean, Herriarrei Laguntzeko Bulegoetan edo 39/2015 Legean ezarritako lekutan. Era berean, errekamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Argibide gehiago: http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?idioma=EU&TemCodigo=152&Dep=7	Información básica tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679 y LO 3/2018 PDPGD. RESPONSABLE: Dirección General Función Pública (DFB). Gran Vía 25-Bilbao FINALIDAD: Gestión del proceso selectivo, su Bolsa de Trabajo y materia de personal. DERECHOS: Ejercer ante el responsable los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: Sede Electrónica, Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia y Registros Generales Departamentales, Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana y lugares previstos en la Ley 39/2015. También tiene derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Para más información: http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?idioma=CA&TemCodigo=152&Dep=7

**Jarraibide orokorrak**

- a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.
- b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- c) Interesduna hautaketa-prozesuan onartua izateak prozesuan eskainitako plaza guztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.
- d) Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

Interesatuarentzako jarraibideak

- a) Deialdiaren oinarrien arabera, eskaerarekin batera, dagokion titulu akademikoa edo hura lotzeko modua baduzula egiaztatzeko dokumentazioa eta oinarrietan eskatutako gainerako agiriak aurkeztu beharko dituzu.
- b) Aurkeztu beharko dira oinarri berezietan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen dituzten dokumentutak (gidabaimena...).
- c) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartuko duten hautagaiek ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna aitortua badie. Zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi behar, eta, horretarako, baimena eman behar diote beren-beregi Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiaztatu dezan. BFAk ez badio desgaitasuna aitortu, interesdunak duen desgaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- d) Lehiaketa-oposizioetan, merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako ereduak aurkeztu behar dira.

Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten hautagaiek edo bitarteko funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako "Hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria" baino ez dute aurkeztu beharko. Hautagai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada.

Merezimenduen kasuan, eskaera-orrian aipatu beharko dira ziurtagirian agertzen ez diren merezimenduak, bestela ezin izango baitira baloratu.

Instrucciones generales

- a) Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- b) Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- c) La admisión en el proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras.
- d) No olvide firmar el impreso.

Instrucciones para la persona interesada

- a) Según las bases de la convocatoria deberá aportar junto con la instancia, el título académico correspondiente o documentación acreditativa de estar en condiciones de obtenerlo, así como aquellos otros que se exigieran en las mismas.
- b) Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases específicas (permiso de conducción....etc).
- c) Los y las aspirantes que participen por el turno de personas con discapacidad que hayan sido declaradas por la Diputación Foral de Bizkaia no deberán aportar nada, simplemente indicar el turno por el que participa, para lo cual la persona participante autoriza expresamente a la Diputación Foral de Bizkaia a su comprobación en la Sección de Valoración de la Discapacidad. Las personas a quienes no se les haya reconocido esta condición la DFB, deberán aportar la documentación acreditativa.

- d) En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico ("Hoja de Méritos").

Las personas que participen por alguno de los turnos de promoción interna (ordinario y de personas con discapacidad), o sean funcionarias interinas, únicamente deberán aportar el "Certificado de datos para procesos selectivos" expedido por el Servicio de Gestión de Personal, y que cada aspirante podrá obtenerlo en su Registro Personal.

No obstante, cualquier requisito no incluido en dicho certificado deberá constar en la instancia, ya que de lo contrario no se podrá participar en el proceso selectivo en el caso de falta del mismo.

En el supuesto de méritos, de igual modo deberán alegarse en la instancia aquellos que no aparezcan en dicho Certificado, ya que, en caso contrario, no podrán ser valorados.



I ERANSKINA / ANEXO I

Aurretiatzko Zerbitzuen Ziurtagiria / Certificación de Servicios Previos

 Bizkaia foru aldundia diputación foral	N.A.N. / D.N.I.

Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellidos	Izena / Nombre
Destinoa / Destino	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia

Kidego, eskala, plaza edo plantilan egindako zerbitzuak Servicios prestados en cuerpo, escala, plaza o plantilla	Lotura Vínculo (1)	Noiztik / Desde			Noiz arte / Hasta			Guztira / Total			Proporzioaltasun maila Nivel de proporcionalidad
		Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	

Goiko datuak horrelaxeokak direla ziurtatzen dut, horiek burutza honen esku dauden aurrerakinekin bat daude eta.
Certifico la exactitud de los datos anteriores, que concuerdan con los antecedentes obrantes en esta jefatura.

Bilbao 2008
(e)an
Pertsonaleko Burua /El-La Jefe/a de Personal,

(1)
C - Karrera funtzionario / Funcionario de carrera
P - Praktiketako funtzionario / Funcionario en prácticas
E - Aldertako enpleguko funtzionario / Funcionario empleo interino
V - Inoizkako enpleguko funtzionario / Funcionario empleo eventual
L - Lan kontratua / Contrato laboral
A - Kontratu administratiboa / Contrato administrativo

Dokumenturik egin gabe egindako zerbitzuen kasurako, zuzenbidez onartutako frogabideak.
Medios de prueba admitidos en derecho para el caso de prestación de servicios no formalizados documentalmente

Bilbao
(lugar) (año) (mes) (día)
Bilbon .eko (e)(a)n
Pertsonaleko Burua /El- La Jefe/a de Personal,

**OPOSIZIOA****HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERA KO FUNTZIONARIO SARTZEKO
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN.
MOTA: INDUSTRIA-INGENIARI TEKNIKOA****OINARRI BEREZIAK****1. Deialdian eskainitako plazak**

Zortzi (8) industria-ingeniari tekniko plaza eskaintzen dira deialdian (A-2 titulazio-az-pitaldekoak), oposizio sistemaren bidez betetzekoak. Plazok derrigorrezko III. hizkuntza eskakizuna dute, eta txanda hauetan banatuta daude:

- Txanda irekia:
 - Zazpi (7) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.
- Desgaitasuna duten pertsonen txandan:
 - Plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, haxe da eskatzen den titulazioa: industria-ingeniari tekniko edo haren baliokidea, edo industria-ingeniariaren gradua (espezialitateak: industria-teknologia, mekanika, industria-elektronika, elektrikaria, industria-kimika eta ehun-ingeniariaren).

3. Berariazko betekizunak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, berariazko betekizuna izango da IT txartel hauek edukitzea: Word Oinarrikoa eta Excel Oinarrikoa (baliokideak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuko eta Excel aurreratuko IT txartelak oinarriko Word eta oinarriko Excel-enak baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Horretarako, sei (6) hilabeteko epea ematen da, deialdi hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dena.

Izangaiek ez dute ageririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu Tecnaliarekin ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten. Aipatu behar da 2020ko apirilaren 17an EHAAk argitaratu zela lehengo «Tecnalia Fundazioa» xurgatzen duen «Tecnalia Research & Innovation fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zela.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta, ondorioz, ez da sartuko prozesuaren ondoren osatuko den lan-poltsan.

4. Hautaketa-prozedura**4.1. Oposizioa izango da izangaia hautatzeko prozedura.**

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu; guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailak.

4.1.1. Lehenengo ariketa: 80 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), bi (2) orduan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietarikoa bat bakarrik izango da zuzena. Agiri honen II. eranskin gisa datorren gai-zerrendan jasotako gai buri buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira.

4.1.2. Bigarren ariketa: Kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira idatziz; kasuok plazaren eginkizunei lotuak izango dira, eta II. eranskinean jasotako gai-zerrendako zati guztietakoak izango dira, salbu I. zatikoak. Ariketa egiteko lau (4) ordu egongo dira gehienez ere.

4.1.3. Hirugarren ariketa: euskararen III. hizkuntza eskakizunari dagokion jakite-maila zehaztu eta egiaztatu beharko da.



Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak berariaz emango dio baimena Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztagiria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Oposizio-fasea:

- a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 24ra, puntuaziorik handiena lortu duten 24 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketak-puntuak berdinketa gertatuz gero, mozketak-nota bera duten hautagai guztiek gaindituko dute ariketa hau.
- b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketan gai edo ez gai baino ez dute lortuko azterketa egiten dutenak; gai kalifikazioa lortzen ez duten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

5.2. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Lehenengo ariketa gainditzeko duten pertsonekin osatuko da lan-poltsa, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera (hau da, bigarren ariketara pasatzen diren guztiekin).

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****I. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurilaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetzaren printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzario eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru Ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta Foru Ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

8. gaia: Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: Xedapen orokorrak.

9. gaia: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea.

10. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

11. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Beteazgarritasuna eta etetea. Beteazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egin-tzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

12. gaia: Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

13. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

14. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua, I. kapituluak, 1. atala, Xedea eta aplikazio-eremua: 1-3 artikulua, bi horiek barne, eta 2. atala, Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak: 4, 6 eta 11. artikulua. Atariko titulua, II. kapituluak, 1. atala, Kontratu motak zedarritzea: 12-18 artikulua, bi horiek barne.

15. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

16. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: Herriararen eta Herri Agintaritzaren eskubide eta egin-beharrak hizkuntzaren alorrean.

17. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko



Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebeharrak ekonomikoak).

18. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldua Nagusia.

19. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru Arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

20. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: Zioen azalpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: hitzaurrea eta atariko titulua eta I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

21. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikusegia txertatzeko neurriak.

22. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5. artikulua), ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua).

II. ZATIA

23. gaia: 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako araudi elektroteknikoa onesten duena (EAO, 224/2002): 1-29 artikulua.

24. gaia: Behe-tentsiorako araudi elektroteknikoaren jarraibide tekniko osagarriak (8, 12 eta 18): neutroaren eta masaren konexio-sistemak energia elektrikoaren banaketa-sareetan, lotura-instalazioen eskemak, lurrerako instalazioak.

25. gaia: Behe-tentsiorako araudi elektroteknikoaren 52. jarraibide tekniko osagarria: ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura.

26. gaia: 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Jasangarritasun energetikoa politika publikoetan integrazioa, eta erakundearen arteko koordinazioa. Helburuak eta ekintza: 1. atala. Helburuak eta ekintza orokorrak; 2. atala. Eraikinak; 3. atala. Garraioa eta mugikortasuna; 4. atala. Beste betebeharrak batzuk. Sustatzeko neurriak eta borondatezko akordioak. Gardentasun- eta informazio-neurriak. Ikuskapena, kontrola eta zehapen-erregimena.

27. gaia: Eraginkortasun energetikoa. 235/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, eraikitzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzeko prozedura onartzen duena: xedapen orokorrak, baldintza tekniko eta administratiboak, eraginkortasun energetikoaren etiketa, energia-kontsumo ia nulua duten eraikinak. 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa: xedapen orokorrak, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak, eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien kontrola, Euskadiko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroa, eraginkortasun energetikoaren etiketa eta informazioa, ikuskapen-planak.

28. gaia: Igogailuak. 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Jasotzeko eta Mantentze-lanetako Aparatuen Erregelamendua onesten duena. 88/2013 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuaren bidez onartutako Jasotzeko eta Mantentze-lanetako Aparatuen Erregelamenduko AEM 1 «Igogailuak» Jarraibide Tekniko Osagarria onartzeko: xedea eta aplikazio-eremua, mantentze-lana, aldaketa garrantzitsuak eta ikuskapenak. 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantendu eta aldatzeko prozedura ezartzeko dena: xedapen orokorrak, instalazioak mantentzea eta aldatzeko ikuskapen ofizialak egiteko prozedura.



29. gaia: 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia onesten duena (I). Xedapen orokorrak. Eskakizun teknikoak. Baldintza administratiboak. Instalazio termikoak exekutatzeko baldintzak. Instalazioa martxan jartzeko baldintzak. Instalazioa erabiltzeko eta mantentzeko baldintzak.

30. gaia: 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia onesten duena (II). IT 1.1.4.1: Ingurugiroaren kalitate termikoaren eskakizuna. IT 1.1.4.2: Barrualdeko airearen kalitatearen eskakizuna. IT 1.1.4.3.1: erabilera sanitariorako ur beroa prestatzea. IT 3.8: tenperaturak mugatzea. IT 4: Ikuskapena.

31. gaia: 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-erregelamendua onartzen duena. Helburua eta aplikazio-eremua. Ezarpen-eremua, eraikuntza eta martxan jartzea. Aldizkako ikuskapenak. Nola jokatu sutea izanez gero. Suteetatik babesteko segurtasuna dela-eta industria-establezimenduek bete beharreko baldintzak eta betekizunak. Erantzukizuna eta zehapenak. I. Eranskina Industria-establezimenduen ezaugarriak suteen aurkako segurtasunari dagokionez. II. eranskina. Industria-establezimenduen eraikuntza-betekizunak, konfigurazioaren, kokapenaren eta arrisku-maila intrintsekoaren arabera. III. eranskina. Industria-establezimenduetako suteen aurkako babes-instalazioen betekizunak.

32. gaia: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen Kontrako Babes Instalazioen Erregelamendua Onartzen duena. Xedapen orokorrak. Suteen aurkako babes-produktuak. Suteen kontrako babes-instalazioak instalatzen dituzten enpresak eta haietan mantentze-lanak egiten dituztenak. Suteen kontrako babes-instalazioen instalazioa, martxan jartzea eta mantentze-lanak. Suteen kontrako babes-instalazioen aldizkako ikuskapenak.

33. gaia: Telekomunikazioak. 9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa: legearen xedea eta aplikazio-eremua; telekomunikazioak, interes orokorreko zerbitzu gisa; legearen helburuak eta printzipioak; sareetara eta lotutako baliabideetara sartzeari nahiz horien interkonektioari aplikatzeko printzipio orokorrak; abonatuak telefono-zenbakiak mantentzea; zerbitzu publikoaren betebeharren mugapena; zerbitzu publikoaren betebeharrak; eraikinetako azpiegitura komunak eta komunikazio elektronikoaren sareak; komunikazio elektronikoaren zerbitzuen azken erabiltzaileen eskubideak; komunikazio elektronikoaren zerbitzuen azken erabiltzaileen eskubide espezifikoak; herritarrentzat eskuragarri dauden komunikazio elektronikoaren sare eta zerbitzuen azken erabiltzaileen eskubide espezifikoak.

34. gaia: Instalazio elektrikoak. Tipologia, diseinua, kalkulua, neurketak eta aurrekontuak. Eraikinetako instalazioen kalkulua eta oinarrizko araudia. Luis Jesús Arizmendi. Fundamentos de Instalaciones Eléctricas. Instalaciones Eléctricas de Media y Baja Tensión.

35. gaia: Berokuntza, klimatizazio, aire girotu eta aire-berrikuntzako instalazioak. Tipologia, diseinua, kalkulua, neurketak eta aurrekontuak. Eraikinetako instalazioen kalkulua eta oinarrizko araudia. Klimatizazio-instalazioen proiektua: araudia betetzea (Techné). Hozte- eta klimatizazio-instalazioen konfigurazioa: 28 (Instalazioa eta mantentze-lanak). Klimatizazioaren oinarriak.

III. ZATIA

36. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, Eraikingintza Arautzekoa. Xedapen orokorrak. Eraikingintzaren eskakizun teknikoak eta administratiboak. Eraikuntzako eragi-leak. Erantzukizunak eta bermeak.

37. gaia: 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT) onestekoa. Xedapen orokorrak. Baldintza tekniko eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak. Oinarrizko dokumentu bakoitzaren aplikazio-esparrua eta aplikatzeko irizpide orokorrak.

38. gaia: EKT HZ OD, Zarataren kontrako babesa: Alderdi orokorrak. Eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa. Diseinua eta neurriak ezartzea. Eraikuntza-produktuak. Eraikuntza. Mantentze- eta kontserbazio-lanak.



39. gaia: EKT SS OD, Suteetatik babesteko segurtasuna: Barrutik hedatzea; Kanpotik hedatzea; Erabiltzaileak ebakuatzea; Suteetatik babesteko instalazioak; Suhiltzaileen lana; Egiturak suaren aurka duen erresistentzia.

40. gaia: EKT ESI OD, Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna: Erortzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Kolperen bat hartzeko edo harrapatuta geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Esparruetan itxita geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Argiztapen desegokiak eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Jendetza biltzen den egoerek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Itotzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Tximistek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Irisgarritasuna.

41. gaia: EKT HO OD. Osasungarritasuna. HO1 Hezetasanaren kontrako babesa. HO2 Hondakinak jasotzea eta hustea. HO3 Barruko airearen kalitatea. HO4 Ur-hornidura. HO5 Urak hustea. HO6 Radonarekiko esposizioaren kontrako babesa.

42. gaia: EKT HE OD. Energia aurrezte. HE0 Energia-kontsumoa mugatzea. HE1 Energia-eskaria kontrolatzeko baldintzak. HE2 Instalazio termikoen baldintzak. HE3 Argiztapen-instalazioen baldintzak. HE4 Energia berriztagarriaren gutxienekoa etxeko ur beroaren eskarirako. HE5 Energia elektrikoaren gutxieneko sortzea.

43. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa. Eraikuntzako obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko baldintzak. Xedapen orokorrak; segurtasun- eta osasun-xedapen bereziak obren proiektu- eta exekuzio-faseetarako; eraikuntza-obretan prebentzio-baliabideak egotea. 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntza-sektorean azpikontratazioa erregulatzen duena: kontratistei eta azpikontratistei eska dakizkiekeen baldintzak; azpikontratazioaren araubidea; araubidea ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak eta zaintza-betebeharra; azpikontratazioaren dokumentazioa; langileen prebentzio-prestakuntzaren egiaztapena.

44. gaia: 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

45. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa. Helburua eta aplikazio-eremua. Irisgarritasuna bermatzeko neurriak. 366/2007 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baitira desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Estatuko Administrazio Orokorrarekin dituzten harremanetan: irisgarritasuna herritarren arretarako bulegoetan. 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak onesten dituena, desgaitasuna duten pertsonen espazio publiko urbanizatu-tara eta eraikuntzetara iritsi eta haiek erabili ahal ditzaten: irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak eraikuntzetara iritsi eta haiek erabili ahal izateko.

46. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. I. eranskina. Parametro antropometrikoak; II. eranskina. Hiri inguruneen irisgarritasun-baldintza teknikoak; III. eranskina. Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak; IV. eranskina. Komunikaziorako irisgarritasuna; V. eranskina. Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan. (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa, eta eranskinak).

47. gaia: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko. II. kapitulua: Autobabes-betebeharrak; III. kapitulua: Autobabes-planak.

48. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena. Helburua eta xedeak. Definizioak. Aplikazio-eremua. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta -materialak ekoizten dituzten pertsonen betebeharrak. Fidantza. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta -materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzea. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen eta -materialen jabe diren pertsonen betebeharrak. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak bereiztea. Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hon-



dakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak. Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzen dituzten pertsonen betebeharrak. Eraikuntza- eta eraispén-hondakinak balorizatzeko jarduerak. Erantzukizun administratiboa eta zehapen-araubidea. Xedapen gehigarriak, iragankorra eta amaierako xedapenak.

49. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena. Xedapen orokorrak eta herritarrek konstituzioko eskubide eta eginbeharretan duten berdintasunaren oinarritzko baldintzak. Herritarren oinarritzko estatutua. Hirigintza-jarduerako ekimenaren eta parte-hartzearen oinarritzko estatutua.

IV. ZATIA

50. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak: Herri-administrazioek kontratuak prestatzea. Herri-administrazioen kontratuak esleitzea. Administrazio-kontratuen ondorioak eta administrazio-kontratuak betetzea eta azkentzea. Kontratazioa teknikoki arrazionalizatzea.

51. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Administrazio publikoen kontratu motak.

52. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2016 Foru Dekretua, uztailaren 20koa, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzen dituena. Kudeaketa zentralizatuko kontratuak Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren bidez lizitatzeko prozedura eta gasturako eskumena. Klausula administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoaren agiria.

53. gaia: Proiektuen zuzendaritza. Proiektuaren eraketa akta. Irismenaren oinarritzko lerroa. Lanaren Deskonposizioaren Egitura edo Work Breakdown Structure (EDT/WBS): kontzeptua, lan-paketeen araberrako banakapena, proiektuaren faseen araberrako banakapena, entregagai nagusien araberrako banakapena. Jarduerak sekuentziatzeko tresnak eta teknikak. Gantt diagrama. Kostuak kontrolatzeko tresnak eta teknikak: irabazitako balioren kudeaketa, pronostikoak, Osatu beharreko Lanaren Jardunaren Indizea (TCPI), jardunaren berrikuspenak. Giza baliabideen kudeaketa planifikatzeko tresnak eta teknikak: organigramak eta lanpostuen deskribapenak. Interesdunak identifikatzeko tresnak eta teknikak: interesdunen azterketa. PMBOK 5. argitaraldia.

54. gaia: Prozesuen araberrako kudeaketa. Prozesuen mapa. Prozesuen deskripzioa. Prozesuen jarraipena eta neurketa. Prozesuen hobekuntza. Helburuak lortzeko prozesuetan oinarritutako kudeaketa. Prozesuetan oinarritutako sistemen dokumentu-euskarria.

55. gaia: Kalitatearen kudeaketa. Kalitatea eta haren bilakaera. Erabateko kalitatearen-bikaintasunaren printzipioak, ereduak eta metodologiak. Kalitatea kudeatzeko sistemen eredu nagusiak: ISO 9000 ereduak, EFQM bikaintasun-ereduak.

56. gaia: Bulego-espazioen kudeaketa. Espazioaren antolamendua. Modulua eta erretikula. Espazio-tipologiak. Ekipamendua eta instalazioak. Iraunkortasun-gomendioak. Irisgarritasun-gomendioak. Indarrean dagoen legezko araudia.

57. gaia: Luminoteknia. Argia: espektro elektromagnetikoa eta argiaren islapen, errefrakzio, transmisio eta xurgapeneko propietateak. Ikusmen-prozesua eta haren ezaugarriak: sentikortasuna eta ikusmen motak, akomodazioa, egokitzea, ikuseremua. Ikusmenean eragina duten faktoreak: tamaina, ikusmen-zolitasuna, kontrastea, denbora. Magnitudeak eta neurketa-unitateak: argi-fluxua, argi-intentsitatea, iluminantzia, luminantzia, argi-errendimendua edo argi-eraginkortasuna, argi-kantitatea. Argiztapen-grafikoak eta diagramak: diagrama polarra edo argi-banaketako kurbak, argi-intentsitateen matrizea, isokandela diagramak, isolux kurbak. Barnealdean argiztapena: itsualdia, lanparak eta luminariak, kolorea, argi-sistemak, argi-metodoak, argi-eraginkortasunaren



balio-galera eta mantentze-lanak. Argiztapen-instalazioen kalkulua: lumenen metodoa, puntuz puntuko metodoa.

58. gaia: Argiztapen-teknologiak. Goritasunezko lanparak eta lanpara halogenoak: goritasuna, goritasunezko lanparen ezaugarriak, lanparen funtzionamenduan eragina duten kanpo-faktoreak, lanparen parteak, lanpara-motak, abantailak eta eragozpenak, zehaztapen tekniko tipikoak. LED bidezko argiztapena: argi-iturri berria, LED teknologiari buruzko oinarritzko ezagutzak, LEDen koloreak, LEDen balio-bizitza, LEDen antolamenduak, LEDen erregulazioa, LED argiztapen-sistemen estandarrak, lanpara tradizionalak eta LED argiak.

59. gaia: Mantentzea 1. Mantentze-funtzioa. Ekipoen analisia. RCMn oinarrituriko mantentze-plana.

60. gaia: Mantentzea 2. Mantentze-lan zuzentzailearen gestioa. Ordezko piezen gestioa. Mantentze-lanetako giza baliabideen gestioa. Mantentze-lanen kalitatea.

61. gaia: Mantentzea 3. Laneko arriskuen prebentzioaren gestioa. Informazioaren kudeaketa. Aldaketaren kudeaketa.

**LEHIAKETA-OPOSIZIOA****HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIOTZAN SARTZEKO
LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ HONAKO ESKALA HONETAN ADMINISTRAZIO BEREZIA****OINARRI OROKORRAK****Lehenengoa. — Xedea**

1. Oinarri hauen xedea da deialdiaren oinarri espezifikoetan zehazten diren Administrazio Bereziko plazak —dagozkion erreserbak eginda— oposizio sistemaren bidez eta karrerako funtzionario legeztatuak betetzeko hautaprobetarako deialdia arautzea.

2. Barne-igoerako txanden erreserbatik datozen izangaiek, dagozkien azterketak gainditzeko badituzte, beti izango dute lehentasuna deialdi honetako lanpostu hutsak betetzeko gainerako izangaien aldean.

Barne-igoera arrunteko txandarako erreserbatutako plaza hutsak bete gabe gelditzen badira (inor aurkezten ez delako, inork ez duelako lortzen azterketak gainditzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa edo inork ez dituelako betetzen bigarren oinarriko betekizunak), orduan plaza horiek txanda irekian eskainitako gehituko zaizkie.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako barne-igoerako plazaren bat bete gabe geratzen bada, barne-igoerako txanda arruntean eskaintzen diren plaza gehituko zaie.

3. Desgaitasuna duten pertsonen txandan aurkezten den izangai batek dagozkion ariketak gainditu bai baina plazarik lortzen ez badu, eta txanda askeko beste izangai batzuek baino puntuazio hobea lortzen badu, puntuazio horrekin sartuko da txanda askean.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako eta betetako plazek deialdiko plaza guztien ehuneko hiru gainditzeko ez badute, bete ez diren plazak hurrengo lan-eskaintza publikoaren ehuneko zazpiko kupoari batuko zaizkio, ehuneko hamarrekoko gehieneko mugarekin.

4. Nolanahi ere, derrigorrezko hizkuntza-eskakizun jakin bat ezarria duten plazak bete ahal izateko, nahitaezkoa izango da izangaiek hizkuntza-eskakizun hori egiaztatua izatea deialdiaren oinarrietan ezartzen den eran.

5. Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina (aurreantzean, EPOE) onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61. artikuluko 8. zenbakiaren arabera, epaimahaiak ezin izango ditu izendatu deialdiko lanpostuen kopurua baino izangai gehiago, deialdiaren oinarri bereziek aukera hori ez jasotzen dutenean izan ezik.

6. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren printzipioarekiko konpromisoa deklaratu da, printzipio horrek gidatzen baitu langileak Bizkaiko Foru Aldundiarren zerbitzuplean sartzeko prozedura.

Bigarrena. — Izangaiek bete behar dituzten baldintzak edo betekizunak

1. Hauek dira:

a) Egoera hauetako bat gertatzea:

— Europar Batasuneko herritarra izatea, bai izangaia edo haren ezkontidea (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), bai izangaiaren ondorengoak edo haren ezkontidearenak (eta ez egotea zuzenbidez banaturik), baldin eta ondorengook hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, urte gehiago izanik, gurasoen mende bizi badira oraindik.

— Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsita nazioarteko hitzarmenen aplikazio-eremuaren barruan egotea, baldin eta hitzarmen horietan langilearen zirkulazio-askatasuna ezar badaiteke.

b) Hamasei (16) urte beteta izatea, baina derrigorrezko erretirorako adina ez izatea.

c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Diziplina-espediente bidez baztertuta ez izatea ezein administrazio publikotako zerbitzutik edo ezein autonomia-erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organotako zerbitzutik. Halaber, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaitasuna edo



desgaikuntza berezia adierazita ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko edo funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ez egotea desgaituta edo pareko egoera batean, eta ez egotea dagokion estatuan baldintza beretan enplegu publikoa betetzea eragozten duen diziiplina-zehapenaren mende edo pareko egoera baten mende.

- e) Deialdian eskatzen den titulazioa izatea edo eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea. Tituluak atzerrian lortu dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo badutela, behintzat, homologazioaren ziurtagiria.
 - f) Oinarri berezietan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.
2. Barne-igoerarako gordetako plazetara aurkezten diren izangaiek jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezien egoeran egon beharko dute jatorrizko plazan, eta betekizun hauek bete beharko dituzte:
- a) Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario izatea gaur egun dauden eskalarietako batean, lortu nahi duten plazaren azpiko lehen sailkapen-taldeko edo -azpitaldeko plaza batean, edo talde edo azpitalde bereko plaza batean, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.
 - b) Bizkaiko Foru Aldundian karrerako funtzionario legez jatorrizko plazan bi urte beteta izatea.
 - c) Lortu nahi den plaza eskuratzeko eskatzen den titulazioa izatea edo eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik titulazio hori eskuratzeko modua izatea, eskatzen den antzintasuna izatea eta oinarri berezietan eskatzen diren gainerako betekizunak betetzea.
3. Barne-igoeraren bitartez sartzeko, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu batekin onartzen duen 2017ko apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 55. artikularekin bat, baldintza hauek bete beharko dituzte Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamentu Zerbitzuko langileek:
- a) Jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan egotea beheragoko berehalako kategorian.
 - b) Kategoria horretan benetan 3 urte beteta edukitzea.
 - c) Hutsegite larri edo oso larri bat dela-eta zigortuta ez egotea, salbu eta ezarritako zigor hori baliogabetzea lortu bada.
4. Desgaitasuna duten pertsonen gordetako plazetara aurkezten direnek %33 edo gehiagoko desgaitasun-gradua izan behar dute aitortua, eta eskaera aurkezteko unean egiaztatu beharko dute hori. Beraz, hautaketa-prozesuan zehar desgaitasuna desagertu egiten bada edo gutxitu, eta portzentaje horren azpitik geratzen, orduan ofizioz aldatuko da izangai hori txanda askera.
- Nolanahi ere, honako kasu hauetan joko da baldintza hori betetzen dutela: ezintasun iraunkor oso bat dela-eta pentsio bat aitortua duten Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, eta zerbitzurako ezintasun iraunkorra edo desgaitasuna dela-eta erretiro-pentsio bat aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunen kasuan.
5. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskakizun horiek guztiak, bai eta hautaketa-prozesuan zehar ere, harik eta izendapena egin arte. Hala ere, oinarri espezifikoek geroratu egin dezakete baldintza zehatzen baten bete behar izateko unea.

Hirugarrena. — Eskaera-orriak

1. Aurkezteko era

Eskabideak I. eranskinean agertzen den eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira; www.bizkaia.eus web-orrian (lan publikoaren eskaintza) eta Bizkaiko Foru Aldundiko edozein erregistrotan eskuratu daiteke eredu, bai eta herritarrei laguntzeko eskualdeetako bulegoetan ere: Bermeon, Durangon eta Gernikan.



Onartuak izateko eta hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek nahikoa izango dute eskaera-orrian euren erantzukizupean adieraztea eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela; horretarako, eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da erreferentzia-data.

Eskaera-orriarekin batera, honako hauek aurkeztuko dira, eta ez besterik:

- a) Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsona) parte hartzen duten izangaiek, bai eta bitarteko funtzionarioek ere, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako «Hautaketa-prozesuetarako informazioa ematen duen ziurtagiria» baino ez dute aurkeztu beharko. Izangai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada. Merezimenduen kasuan, eskaera-orrian aipatu beharko dira ziurtagirian agertzen ez diren merezimenduak, bestela ezin izango baitira baloratu bederatzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera.

- b) Deialdiaren oinarri berezietan eskatzen den titulua edo egiaztagiri bat ziurtatzen duena izangaia modua duela titulua eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzera, bai eta deialdiko oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerakoak ere.
- c) Aurkeztu diren merezimenduen zerrenda (barne-igoerako txandetan parte hartzen dutenek eta bitarteko funtzionarioek «Hautaketa-prozesuetarako informazioa ematen duen ziurtagiria» agirian agertzen ez diren merezimenduak alegatu beharko dituzte).
- d) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzen duten izangaiek desgaitasunaren ziurtagiria aurkeztu behar dute. Hala ere, ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna aitortua badie. Zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi behar, eta, horretarako, baimena eman behar diote beren-beregi Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiaztatu dezan.

Dokumentazio hori eta hautaketa-prozesuan eskatutako gainerako agiriak bederatzigarren eta hamahirugarren oinarrietan aipatzen den eran bakarrik aurkez daitezke.

Eskaera-orrian adierazi behar da zein txandatan parte hartu nahi den: a) txanda askea; b) barne-igoera; c) desgaitasuna duten pertsonen txanda edo d) desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoera. Lau txanda horietatik batean baino ezin da parte hartu.

Desgaitasuna duten pertsonen txandetako baten bidez lehiatzen direnek denbora edo/eta baliabiderik egokitzea behar badute, hala adierazi beharko dute, eta horretarako arrazoia azaldu beharko dute.

Eskaera-orriaren 4. atalean, azterketa euskaraz egin nahi den adierazi beharko da.

2. *Eskaera-orriak aurkezteko tokia*

2.1. Eskaera-orriak telematikoki aurkeztuko dira, Aldundiaren web-orrian erabilgarri dagoen aplikazio informatikoaren bidez: www.bizkaia.eus (lan-eskaintza publikoa). Herritar guztiei sarbidea bermatzeko, Foru Aldundiak aurrez aurreko arretagune bat jarriko du, eta tramitazioak egiteko behar diren baliabide informatikoak jarriko ditu herritarren eskura Laguntza - Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan, Foru Liburutegiaren beheko solairuan: Diputazio kalea, 7, Bilbo-48008. Eskaera-orriarekin batera, eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da nahitaez, eskaneaturik, hirugarren oinarriaren 1. zenbakian ezarritakoarekin bat.

2.2. Halaber aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuekin. Eskabidea bulego batera joanda aurkezteko erabakitzen dutenentzat, eta artikulua honetan xedatzen dena betetzeko, sail guztietako erregistroak joko dira erregistro-gaitan laguntzeko bulegotzat.

**3. Eskaera-orriak aurkezteko epea**

Eskaera-orriak hogeitaz (20) egun balioduneko epearen barruan aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4. Eskaera-orrietako akatsak

Eskaera-orriak azaldutako epearen barruan eta eran ez aurkezteak izangaia baztertuta geratzea ekarriko du.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat, eskaera-orrietan akatsik egonez gero, iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Foru Aldundiaren iragarki-oholean zein www.bizkaia.eus webgunean (Lan Publikoaren Eskaintza), interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar egun baliodunen epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Laugarrena.— Eskaerak onartzea

1. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaituta, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak onartutako, baztertutako eta atzera egindako izangaien zerrendak onetsiko ditu, Foru Agindu baten bidez, eta hiru toki hauetan argitaratuko dira: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean (Kale Nagusia, 25, Bilbo) eta www.bizkaia.eus web-orrian.

Zerrenda horietan, izangaien izen-abizenak eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia agertuko dira (aintzat harturik zer ezartzen duen bere zazpigarren xedapen gehigarrian 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak), eta orobat agertuko da, hala dagokionean, izangaiak ez onartzearen arrazoia.

2. Onarturikoen, bazterturikoen eta atzera egindakoen zerrendak onesten dituen Foru Aginduaren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko epean (1), Foru Agindu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Errekurtsoa ez bada ebazten probak egiten diren egunerako, interesdunek probak egin ahal izango dituzte, kautelaz. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango errekurtsioa ezetsiz gero.

Bosgarrena.— Epaimahai kalifikatzailearen osaera, eraketa eta jarduna**1. Osaera**

1.1. Izangaien hautaketa epaitu behar duten epaimahaiek kide titullarrak eta ordezkariak izango dituzte, era honetara:

— Epaimahaiburua:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

— Epaimahaikideak:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako hiru funtzionario.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat.

— Idazkaritza:

- Bizkaiko Foru Aldundiko karrerako funtzionario bat.

1.2. Epaimahaiak osatzeko orduan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen (aurrerantzean 6/1989 Legea) 31. artikuluen 2. zenbakian jasotako espezialitatearen printzipioa bermatuko da, baita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen (aurrerantzean 4/2005 Legea) 20. artikuluen 4. zenbakian ezarritako ordezkari itzaz orekatuarena ere.

1.3. Ezin izango dute epaimahaian parte hartu deialdia argitaratu aurreko bost (5) urteetan hautaketa-prozesuetarako izangaiak prestatzeko zereginetan ibili direnek.



1.4. Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu txit pres-tuak izendatuko ditu epaimahaia osatuko duten pertsonak, Foru Agindu bidez, eta Biz-kaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da haien zerrenda, onarturiko izangaien, baztertu-rikoen eta atzera egindakoen Foru Aginduekin batera.

1.5. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak pertsona bat izendatuko du epai-mahai kalifikatzailean parte hartzeko; horrez gainera, deialdian eskatzen diren hizkun-tza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako epaimahaietan parte hartuko duten kideak ere izendatuko ditu.

1.6. Epaimahaiak, edozelan ere, aholkulari espezialistak hartu ahal izango ditu. Hala ere, lankidetzan hori nork bere espezialitate teknikoetan jardutera mugatuko da.

2. *Abstentzioa eta errekusazioa*

Epaimahaikideek uko egin beharko diote parte hartzeari baldin eta Sektore Publikoa-ren araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren egoeretakoren bat gertatzen bada. Halaber, halako inguru-a-barren bat gertatuz gero, izangaiek kide horien errekusazioa eskatu ahal izango diote Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari.

3. *Eraketa*

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardunean aritu ere, gutxienez epaimahai-burua eta idazkaria —edo haien ordezkioak— eta kideen erdiak bertaraten ez badira. Idazkaria ez da kontuan hartuko zenbaketa hori egiteko.

4. *Jarduna*

1.1. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubi-dea, idazkariak izan ezik: hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

1.2. Botoen gehiengoz hartuko dira epaimahaiaren erabakiak.

1.3. Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Foru Jauregian izango du epaimahaiak egoitza (Kale Nagusia, 25, 48009-Bilbo).

1.4. Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan eta Epaimahaien Jardunbi-deari buruzko Eskuliburuan aurrez ikusita ez dauden zalantzak ebazteko, bai eta deialdi hau egoki bideratzeko beharrezko erabakiak hartzeko ere.

1.5. Epaimahaiak nortasuna egiazta dezatela eska diezaieke izangaiei hautake-ta-prozesuan zehar, edonoiz.

1.6. Epaimahaiak, hautaketa-prozesuan zehar, nork bere espedientearen berri iza-teko eskubidea bermatuko die izangaiei.

1.7. Epaimahaiak hartu beharreko neurriak hartuko ditu konfidentzialtasuna bermat-zeko. Azterketak, ahal dela, norenak diren jakin barik zuzenduko dira, ahozko azterketak, jendaurrean irakurri beharreko idatzizko ariketak edo lan praktikoak direnean izan ezik.

1.8. Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izan-go zaio Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

1.9. 39/2015 Legearen 45.b) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, hauta-keta-prozesutik ateratzen diren administrazio-egintzak foru-jauregiko iragarki-oholean (Kale Nagusia, 25) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitara-tu behar dira; argitalpen horiek jakinarazpenaren ordezkio dira, eta, beraz, haren ondorio berak izango dituzte.

5. *Kalte-ordainak*

Epaimahaietan parte-hartzea dela eta izandako egonaldiak eta lankidetzek zerbi-tzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan xedatutako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea sortuko dute.

**Seigarren. — Hautaketa-prozedura**

1. Oposizio-lehiaketa bidez aukeratuko dira izangaiak txanda guztietan: txanda askea, desgaitasuna duten pertsonen txanda, barne-igoera arrunta eta desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerakoa, deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera. Hautaketa-prozeduretan, praktika-aldi bat edo trebakuntzako ikastaro bat gainditu beharra ezarri ahal izango da, betiere deialdiaren oinarri berezietan ezarritakoaren arabera.

2. Deialdiaren oinarri berezietan adierazitako ariketek osatutako dute oposizio-aldia, eta izangaiak jakitea eskatuko zaien araudia, berriz, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da. Ariketa guzti-guztiak gainditzen dituztenek bakarrik gaindituko dute oposizio fase hau.

3. Lehiaketa-aldia, berriz, ez da baztertzalea izango, ezingo da kontuan hartu oposizio-aldiko ariketak gainditzeko, eta bertan oposizio aldia gainditu duten izangaiak aurkeztu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari puntuazio bat emango zaio deialdian azaltzen diren baremo zehatzen arabera.

Ez dira kontuan hartuko emandako epearen barruan egiaztatu arren eskabidearekin batera adierazi ez diren merezimenduak, ezta eskabidearekin batera adierazi arren egiaztagiria aurkezteko epearen aurretik edo ondoren frogatu diren merezimenduak ere.

Nolanahi ere, aurkeztutako merezimenduak zenbatzeko erreferentzia-data beti izango da deialdiaren oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren eguna.

4. Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzalea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetan, eta borondatezkoa eta ez-baztertzalea, berriz, gainerako plazetan. Euskarazko nahitaezko azterketa baztertzalea gainditzen edo egiten ez duten izangaiak derrigorrezko eskakizun hori ezarrita ez duten gainerako lanpostuetarako hautaketa-prozesuan jarraituko dute; ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu gisa zenbatuko da, hala badagokio.

Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Era berean, ez da ziurtagiri akademikorik aurkeztu behareko 2012ko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztatze-salbuespenen kasuan, baldin eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

Hala ere, 47/2012 Dekretuan jasota egon arren Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ageri ez diren egiaztatze-salbuespenetan ezingo da baliatu aukera hori, eta kasuan-kasuan dagokion ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira.

Behar diren egiaztapenak egin ahal izateko, interesdunak baimen espresua emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari beraren ziurtagiriak edo salbuespenak erregistro horretan begira ditzan.

Nolanahi ere, interesdunak aukera du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan bere datuak kontsultatzeko, honako esteka honetan: <http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/>

Zazpigarrena. — Oposizio-fasearen hasiera eta garapena

1. Oposizio-aldiak abiatuko du hautaketa-prozesua. Horretarako, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak onartuen, baztertuen eta atzera egindakoen zerrendak onesteko Foru Aginduan emango du jakitera zer egunetan, ordutan eta lekutan egingo den lehen ariketa.

2. Onartutakoen, baztertutakoen eta atzera egin dutenen zerrendari buruzko Foru Agindua argitaratzen denetik lehen ariketa egin arte, bi (2) hilabeteko epea utzi behar da, gutxienez.



3. Izangaiek jarduteko hurrenkera Administrazio Publikorako Estatuko Idazkaritzak egindako zozketaren arabera zehaztuko da, Estatuko Administrazio Orokorreko langile izateko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak betetze-ko eta funtzionario horien lanbide-sustapenerako Araudi Orokorra onetsi zuen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Deialdian ez bada inor zozketan ateratako letraz hasten den deiturarik duenik, alfabetoko hurrengo letren bidez ezarriko da hurrenkera.

5. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei, eta bertaratzen ez direnak baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak aintzat hartutako kasuetan izan ezik.

Errekurtsioa ez bada ebazten probak egiten diren egunerako, interesdunek kautelaz egin ahal izango dituzte probak. Kautelaz egindako ariketek ez dute baliorik izango erre-
kurtsioa ezetsiz gero.

6. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek egokitzapen materialak eska ditzakete, beren egoeraren berri emanaz Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuari, probak egin baino bost egun baliodun lehenago gutxienez.

Arrisku-haurdunaldiaren edo erditzearen kasuan (behar bezala egiaztatu beharko da kasua) izangai batek hautaketa-prozesua ezin badu amaitu edo prozesuko ariketa-
ren bat ezin badu egin, beharrezkoa izango da izangai horrek prozesua amaitzea eta geroraturako faseak gainditzea. Baina faseok ezin dira gehiegi atzeratu, ez, behintzat, gainerako izangaiek zentzuzko garai batean ebazpena jasotzeko duten eskubidea kal-
tetzeko moduan (epaimahaiak ebaluatuko du noiz den zentzuko garaia). Edonola ere, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira fase horiek.

Goian ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaprobetan aukera- eta tratu-berdinta-
suna bermatzeko, epaimahai kalifikatzaileak egokitu egin ditzake probak egiteko egunak eta/edo lekuak haurdunaldiko arriskua duten, erditzen dauden, edo erditu aurreko edo ondorengo egoeretan dauden emakumeen kasuan, betiere inguruabar horiek proba edo ariketa egin baino lehen jakinarazten bazaizkio epaimahai kalifikatzaileari eta mediku-
aren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada egoera hori. Nolanahi ere, hala egokitutako probak aukeraturako pertsonen zerrenda argitaratu baino lehen egin beharko dira.

Proba fisikoak egonez gero, aukera egongo da probok geroratzeko mediku-ziurtagiri batek adierazten duen arte, eta emakume bat praktiketako funtzionario modura aukera-
tua izan daiteke, hala badagokio eta gaindituak baditu hautaketa-prozesuko gainerako probak, baina proba fisiko horiek gainditu beharko ditu geroago. Ez badagokio praktike-
tako funtzionario izendatua izatea, lan-poltsarako zerrendan sartuko da, puntuazioaren arabera. Probak eta praktika-aldia gaindituta, karrerako funtzionario izendatzeko hauta-
tua izan daiteke. Aipaturako proba fisikoak gainditzen ez baditu, baliogabetuta geratuko dira gainerako izangaientzako ariketa egin zen uneaz gero egindako jarduketak.

Haurdunaldia edo erditzea dela-eta izangaia ezin badu praktika-aldian parte hartu, praktikak lanpostuan egitekoak badira, medikuak baimendutakoan egin ahal izango du, eta, ikastaro batean egitekoak badira, aurrerago egingo ditu, eskala, azpieskala, mota eta kategoria bererako hurrengo ikastaroan.

7. Ariketa bat amaitzen denetik hurrengo hasi arte hirurogeita hamabi (72) ordu igaro beharko dira, gutxienez, eta epe hori, gehienez, berrogeita bost (45) egun baliodu-
nekoa izango da.

8. Behin hautaprobak hasita, ez da nahitaezkoa izango hurrengo iragarkiak Bizkai-
ko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Foru Aldundiaren iragarki-oholean eta Aldundiaren web-orrian (www.bizkaia.eus) argitaratuko ditu epaimahaiak iragarkiak, probak hasi bai-
no hamabi (12) ordu lehenago gutxienez, baldin eta ariketa bera bada, edo hogeita lau (24) ordu lehenago, beste ariketa bat bada.

9. Epaimahai kalifikatzaileek ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dituzte desgaitasuna duten izangaientzat, gainerako parte-hartzaileen aukera berdina



izan ditzaten, betiere egokitzapenaren bidez ariketen edukiari garrantzia kentzen ez bazaio edota ariketetan eska daitekeen gaitasun-maila jaisten ez bada.

10. Oposizio-aldiko ariketa bakoitza zuzentzen amaitzean, epaimahaiak jendarean jarriko ditu gairak dutenen izenak eta kalifikazioak, hala Foru Aldundiaren iragar-ki-oholean nola Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (www.bizkaia.eus). Zerrenda horiek deialdiaren oinarri berezietan zehaztutako txandetako bakoitza bereiziz osatuko dira.

- a) Barne-igoera arrunteko txandako ariketak gairak dituztenen zerrenda.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzako barne-igoerako txandako ariketak gairak dituztenen zerrenda.
- c) Txanda irekiko ariketak gairak dituzten gainerako izangaien zerrenda bateratua.
- d) Desgaitasuna dutenen txandako ariketak gairak dituztenen zerrenda.

Zerrenda horiek, euskara-azterketa egin ondoren, bereizita argitaratuko dira, plazek ezarritako denbora-hizkuntza-erabakizunaren arabera eta plaza bakoitzari ezarritako eskakizuna nahitaezkoa den edo ez kontuan hartuta.

11. Azken ariketa gairak dituzten izangaien zerrenda argitaratzen denean amaituko da oposizio aldia.

Zortzigarrena.— Nola tratatuko diren jokabide iruzurgilea eta lehia desleiala

Epaimahaiak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango du iruzurrez jokatzeko duen edozein izangai, jokabide horrek edozein proba normal garatzea eragozten badu edo, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, lehia desleiala sortzen badu. Epaimahaiburuak berehala emango dio jarduketan berri Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, eta gertatutako jasoko du dagokion bilera-aktan. Halaber, hautaketa-prozesuko edozein proba egiten den bitartean, ezin izango da eduki edo erabili goraxeago aipaturiko printzipioak bermatzea saihesteko erabil daitekeen gailu edo baliabide teknologikorik, eta kasu bakoitzean argitaratzen den jarraibide-orria izango da atal honetan ezarritakoa zehazteko eta garatzeko epaimahaiak erabiliko duen tresna.

Izangai batek agindu horiek betetzen ez baditu, probatik eta hautaketa-prozesutik kanporatua izango da, berehala, eta, beraz, ez da sartuko prozesu horretatik sortzen den lan-poltsan.

Bederatzigarrena.— Lehiaketa fasearen hasiera eta garapena

Oposizio-fasea amaitutakoan lehiaketa-faseari emango zaio hasiera.

Oposizio-fasea gairak dituzten izangaiak hamar (10) egun baliaduneko epea izango dute, azken ariketa gairak dituzten izangaien zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskaera-orrian aipatu zituzten merezimenduen egiaztapenak aurkezteko. Horretarako, oposizio aldia gairak dituzten izangaien zerrendarekin batera, eskaera-orrian aipatutako merezimenduen egiaztapenak aurkezteko epea zein egunetan amaitzen den argitaratuko da. Lehiaketa aldia baloratzeko orduan, epe horren barruan eta hurrengo paragrafoan zehaztutako moduan eta tokietan aurkeztutako dokumentazioa baino ez da kontuan hartuko.

Interesatuak jatorrizko dokumentazioa eta haren kopia aurkeztu beharko dituzte, biak aldatzeko, edo, bestela, horretarako eskumena duen organoak behar bezala egiaztatutako kopia. Bizkaiko Foru Aldundiaren edozein sailerako erregistro orokorrean aurkeztuko dira agiri guztiak, edo 39/2015 Legearen 16 artikuluan aipatutako tokietan. Betekizun eta baldintza horiek beteta, oposizio-fasea gairak dituzten baina errekurtsioa jarri duten pertsonen ere aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa, kautelaz, errekurtsio horri buruzko ebazpenak hasierako fase edo aldi hori gairak dituztena ekar badezake.

Barne-sustapeneko txandetan parte hartzen duten izangaiak (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) eta bitarteko funtzionarioek «Hautaketa-prozesu-erako informazioa ematen duen ziurtagiria» dokumentuan agertzen ez diren merezimenduak alegatu badituzte, lehiaketa-fase honetan egiaztatu beharko dituzte.



39/2015 Legearen 68. artikularekin bat, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsik egonez gero, iragarkia argitaratuko da www.bizkaia.eus web-orrian (lan publikoaren eskaintza), interesdunari eskatzeko zuzen dezala akatsa hamar (10) egun balioduneko epean. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, merezimenduak ez direla baloratuko lehiaketa-fasean.

Era berean, hautaketa-prozesua gaingitu ez dutenek ere aurkeztu beharko dituzte kontuan hartzekoak diren merezimenduen egiaztagiria, horrela deialditik ateratzen den lan-poltsaren aurretasun-hurrenkera zehazteko.

Hamargarrena. — *Hautaprobeen kalifikazioa*

1. *Oposizio-aldia*

Deialdiaren oinarri berezietan adierazi den eran kalifikatuko dira oposizio aldiko ariketak.

2. *Lehiaketa-aldia*

Deialdiaren merezimenduen baremoaren arabera emango dira puntuak, eta puntu horien batura izango da lehiaketa aldiko kalifikazioa.

3. *Azken kalifikazioa*

3.1. Hautaprobeen azken kalifikazioa lehiaketa- eta oposizio-faseetan eta —hala badagokio— praktika-aldian edo trebakuntzako hautaketa-ikastaroan lortutako puntuazioen batura izango da.

3.2. Jarraibide gisa harturik Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2. artikulua ezartzen duena —Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak emandako idazkeran—, izangaiak gaitasun berak izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumezkoen ordezkaritza %40tik beherakoa den administrazio kidego, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da beste izangaiak ere neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen arrazoiren bat izatea (sexu-diskriminaziorik eragiten ez duena), hala nola lana lortzeko zailtasunak dituen kolektibo bateko kidea izatea.

3.3. Horrez gainera, eta aurreko zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe, berdinketarik badago, hauek izango dute lehentasuna hurrenkera ezartzerakoan: lehenik, oposizio-aldian punturik gehien lortu duenak; bigarrenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; hirugarrenik, Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzuan denborarik luzeena egina duenak; laugarrenik, beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan denborarik luzeena egin duenak, eta, azkenik, zaharrenak.

Hamaikagarrena. — *Hautatutako pertsonen zerrenda eta pertsona horiek karrerako funtzionario izendatzeko proposamena*

1. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, epaimahaiak hautatutakoen zerrendak argitaratuko ditu. Zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera egingo dira, eta, bertan, oposizio faseko ariketa bakoitzaren kalifikazioa, merezimenduen balorazioa eta guztira lortutako puntuen batura jasoko dira. Horrez gainera, hautatutako pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena aurkeztuko du epaimahaiak.

2. Lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak betetzea, eta, izangaiak hautatzeko orduan, hizkuntza-eskakizunik altuena egiaztatutakoen izango dute lehentasuna. Hori kontuan hartuta, epaimahaiak hautatutakoen zerrendak egiteko, lehenik, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendak erabiliko ditu, hizkuntza-eskakizun altuenetik txikinera; ondoren, berdinduko du derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizuna dutenen zerrendekin. Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan ezarritako eran egiaztatu ez duten izangaiak ezin izango dituzte inola ere bete derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak.

3. Era berean, EPOE Legearen 61. artikularen 8. zenbakian ezarritakoa betetzeko, epaimahaiak karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen osagarri bat egingo du, honako kasu hauetan erabil dadin: izangairen batek agiriak aurkezten ez dituenean edo faltsutzen dituenean, edo bere plazaz jabetzen ez denean, jabetzeari uko egiten dionean edo eskatutako baldintzak eta eskakizunak egiaztatzen ez dituenean.



4. Hautaketa-prozesu honetako ariketak gainditzten dituzten izangaien zerrendek bitarteko funtzionarioak izendatzeko balioko dute, bai indarreko arategian ezarritako kasuetarako.

Hamabigarrena. — *Praktika-aldia eta/edo prestakuntza-ikastaroa*

1. Deialdiaren oinarri espezifikoetan praktika-aldia eta/edo prestakuntza-ikastaroa egitea aurreikusten denean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 3/1987 Foru Arauarekin bat, Foru Aldundiak praktiketako funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatzen dituen izangaiak, harik eta deialdian iragartzen diren eta aurrekontu-dotazioa duten plaza guztiak bete arte.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen den izendapen-data interesdunei jakinaraziko zaie, eta hiru toki hauetan argitaratuko da: iragarki oholean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko da. (www.bizkaia.eus).

3. Praktiketako funtzionario legez lanpostuaz jabetzeko eguna Administrazioak zehaztuko du.

4. Izendatuak izan direnek praktika-aldia edo prestakuntza-ikastaroa hasi beharko dute. Iragarriko da noiz hasten diren praktika edo ikastarook. Arrazoi justifikaturik gabe praktika-aldian edo prestakuntza-ikastaroan hasten ez badira, praktiketako funtzionarioaren izendapenari uko egiten diotela joko da.

5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, praktiketako funtzionario gisa diharduten bitartean, nolanahi ere, tituludun taldearen oinarritzko lansariak jasoko dituzte eta talde horri emandako lan-izendapenagatiko osagarriaren gutxieneko mailaren baliokidea izango dute.

6. Praktiketako funtzionario guztiek batzorde ebaluatzaileak izendatutako tutore bat izango dute, eta haren eginkizuna praktiketako funtzionarioaren jardueren jarraipena eta txostena egitea izango da. Tutore horrek txostena egingo du, deialdiko oinarri espezifikoetan xedatutakoaren arabera. Ebaluazio-prozesua praktika-aldi guztian zehar egingo da. Ebaluazio-batzordeak, txostena ebaluatu, eta, hala badagokio, praktika-aldia gainditu duten pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo dio epaimahaiari. Epaimahaiak, berriz, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari igorriko dio, eta hark, azkenik, Foru Aldundiari.

7. Ebaluazio-batzordea epaimahaiaren mende dagoen organo aholku-emaile bat da, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak Foru Aginduz izendatutako kideez osatua. Batzorde horretako kideek epaimahaikoen abstentzio-eta errekusazio-araubide bera bete beharko dute, eta onartu eta baztertutakoen zerrendarekin batera argitaratuko dira haien izen-abizenak.

8. Prestakuntza-ikastaroak eta/edo praktikaldiak ezin dute 18 hilabete baino gehiago iraun, eta, edozein kasutan ere, izangaiak karrerako funtzionario izendatzen direnean amaituko dira. Deialdian ezarritako kalifikazio-prozesuarekin bat etorritik, ez gainditzeak berez ekarriko du izangaia hautaketa-prozesutik kanpo uztea, bai eta karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galtzea ere.

Hamahirugarrena. — *Agiriak aurkeztea***1. *Eskatzen diren agiriak***

1.1. Proposatzen diren izangaiak deialdi honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko dituzte; zehazki, honako hauek:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Osasuneko Unitatearen ziurtagiria non egiaztatzen den izangaiak baduela dagozkion eginkizunetarako lan-gaitasuna, oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera. Horretarako, hautatuek dagozkien probak eta azterketak egingo dituzte. Proba-azterketok egiteari uko egin ez gero, prozesutik kanpo geratuko dira.
- b) Izangaiak diziplinazko espediente baten bitartez inolako administrazio publikoren zerbitzutik bereiziak izan ez direlako adierazpena; bai eta administrazio



publikoen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasuneko kasuetako batean ere ez dagoe-lakoa ere, eta, hala denean, bateragarritasun-eskabidea.

- c) Deialdiaren oinarri berezietan eskatzen diren tituluoen fotokopiak (edo tituluok eskuratzeko ordaindutako eskubideenak) eta gainerako betekizunen fotokopiak, denak behar bezala konpultsatutak.

1.2. Izangairen batek ezin baditu aurkeztu aurreko paragrafoan zehaztutako agiriak, eta behar den moduan justifikatzen badu hori, zuzenbidean onetsitako edozein frogarabiliz egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

2. *Agiriak aurkezteko lekua*

Aurreko agiriok Bizkaiko Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko dira (Kale Nagusia, 25, Bilbo-48009).

3. *Agiriak aurkezteko epea*

Egutegiko hogeita (20) egun baliouduneko epea egongo da agiriak aurkezteko, izangaien zerrendak jendaurrean jartzen direnetik aurrera.

4. *Salbuespenak*

Funtzionario publikoek ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenean egiaztatu behar izan zituzten baldintza eta betekizunei buruzko agiriak. Atxikita dauden organismoaren ziurtagiria besterik ez dute aurkeztuko, funtzionario-izaera eta haien espedienteetan agertzen diren gainerako inguruabarrak egiaztatzeke.

5. *Agiriak ez aurkeztea*

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, aipatutako epearen barruan agiriak aurkeztu ez dituztenak edo aurkeztu dituzten agiriaren arabera bigarren oinarrian adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatuak izan, eta haien jarduketa guztiak baliogabetuta geratuko dira. Horrez gainera, erantzukizuna eskatu ahal izango da eskaera-orrian egindako faltsukeria dela-eta. Hala gertatzen bada, izendapen osagarri baterako proposamena egingo da, hamaikagarren oinarriaren 3. zenbakian aipatzen den moduan; hain zuzen ere, baliogabetze horren ondorioz deialdiko plaza-kopuruan sar daitezkeen izangaien aldeko izendapen-proposamena egingo da, puntuazio-hurrenkeraren arabera.

Hamalagarrena. — Karrerako funtzionarioen izendapena

1. *Organo eskuduna*

Jarraibide gisa harturik Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 17. artikulua 1. zenbakiaren 33. azpi-zenbakia, epaimahaiak proposatutako izangaiak izendatuko ditu Foru Aldundiak karrerako funtzionario.

2. *Izendapenak jakinaraztea eta argitaratzea*

Izendapenak interesduneri jakinaraziko zaizkie, eta iragarki-oholean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira (www.bizkaia.eus).

Hamabosgarrena. — Plazaz jabetzea

1. *Betekizunak*

Plazaz jabetzeko egintzan bertan beteko da EPOE Legearen 62. 1.c) artikuluan ezarritzen den betekizuna.

2. *Epea*

Plazaz jabetzeko epea hilabete (1) izango da, izendapena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

**3. Epea luzatzea**

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak lanpostuaz jabetzeko epea luzatu ahal izango du, interesdunak hala eskatuta, baina inoiz ere adierazitako epearen erdia baino gehiago.

4. Lanpostuaz ez jabetzea

Izangai batek lanpostuari uko egiten diola joko da baldin eta, arrazoi justifikaturik gabe, ez bada haren jabe egiten oinarri honen 2. zenbakian adierazitako epearen barruan edo emandako luzapenaren barruan. Hala gertatzen bada, hemen ere hamaikagarren oinarriaren 3. zenbakian aipatutako izendapen osagarriarako proposamena egingo da —hurrenkeraren arabera—, deialdiko plaza-kopuruan baliogabetze horren ondorioz sar daitezkeen izangaiak izendatzeko.

Hamaseigarrena. — Destinoen aukeraketa

1. Izangaiek hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean duten hurrenkeraren arabera aukeratuko dute destinoa. Hala ere, lehentasuna izango dute barne-sustapeneko txandetatik datozen izangaiek.

2. Horretarako, prozesua amaitutakoan, hautaprobetako ariketa guztiak gainditu dituzten izangai guztiak zerrenda bakarrean argitaratuko dira, bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren hurrenkeraren arabera antolatuta, zein txandatan parte hartu duten kontuan hartu gabe, barne igoerako txanden bidez parte hartu dutenak izan ezik, horiek euren zerrenda propioa osatuko dute eta.

3. Zerrenda hori egoki antolatzeko, derrigorrezko euskara-ariketak gainditu dituztenei emandako «gai» kalifikazioaren ordezt, deialdiaren oinarri berezietan hizkuntza-eskakizun bakoitza egiaztatzeagatik ezarritako puntuazioa jasoko da zerrendan.

4. Destinoak aukeratzeko orduan ez da kontuan hartuko izangaiak zer hizkuntza-eskakizunen bidez aukeratuak izan diren, betiere derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazak beterik geratzen badira. Izan ere, lehentasunezkoa izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten lanpostuak betetzea.

5. Hala eta guztiz ere, desgaitasunen bat duten pertsonentzako txanden bidez onartzen direnek destinoa aukeratzeko lehentasun-hurrenkera aldatzeko eskaria egin diezaioke Bizkaiko Foru Aldundiari, mendekotasun pertsonala, mugitzeko zailtasunak edo antzeko beste arrazoi batzuk emanez. Egoera horiek behar bezala egiaztatu behar dira. Lanpostuak adjudikatzeko eskumena duen organoak aldaketa hori egitea erabakiko du baldin eta behar bezala justifikatuta badago, eta aldaketak ahalik eta eragin txikiena sortu behar du lehentasun-hurrenkeran, desgaitasuna duen pertsonak lanpostua eskuratzeko bestekoa soilik.

Hamazazpigarrena. — Kontratazio-zerrendak

Hautaketa-prozesu honen ondorioz, kontratazio-zerrenda bat egingo da deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, eta, zerrenda hori kudeatzeko, aintzat harturiko dira funtzionarioen hautaketaren arloan indarrean dauden xedapenak eta kontratazio-zerrendak eta lan-poltsak kudeatzeko irizpideak. Horiek guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren www.bizkaia.eus webgunean (Lan Eskaintza Publikoa) argitaraturik daude. Bizkaiko Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio edo erakunde publiko batzuei utzi ahal izango die kontratazio-zerrenda hori, goraxeago aipaturiko araudiarekin bat. Kontratazio-zerrendak Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegu publikoari buruzko webgunean argitaratuko dira, horrela gardentasuna bermatzeko, eta helburu hori betetzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak bakarrik adieraziko dira.

Hemezortzigarrena. — Kexak eta iradokizunak

Izangaiek kexak eta iradokizunak aurkez ditzakete, edonoiz, www.bizkaia.eus web-orriko «Kexak eta iradokizunak» estekaren bidez (Lan Publikoaren Eskaintza), edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailek Bilbon dituzten erregistro orokorretan nahiz herritarrei



laguntzeko eskualde-bulegoetan edo 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarrita dauden tokietan.

ISO 9001:2015 egiaztagiria dela bide, aurkeztutako kexa eta iradokizunak Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzuan dagoen kexa eta iradokizunen erregistroan sartuko dira, eta dagokien tratamendua emango zaie.

AZKEN ARAUAK

1. Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztirako, honako arau hauek aplikatuko dira: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta lege horiek garatzeko arautegia eta ezarri beharreko gainerako xedapenak, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Epaimahaietarako Eskuliburua.

2. Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Ahalduen Nagusiaren aurrean hilabeteko (1) epean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi (2) hilabeteko epean, txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, baina ezin dira errekurtso biak aldi berean jarri.

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

Garrantzizkoa: zehaztasunak idatzi baino lehen irakur itzazu atzeko orrialdeko azalpenak.
Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones al dorso.

1.- Deialdia / Convocatoria

Eskala/Escala		Azpieszkala, kategoria, mota/Subescala, categoría, clase	
Sarbideak / Sistemas de acceso		Txanda / Turno	
☐ Lehiaketa ☐ Concurso	☐ Oposaketa ☐ Oposición	☐ Lehiaketa-oposaketa ☐ Concurso-oposición	☐ Askea ☐ Libre
		☐ Barne sustapena ☐ Promoción interna	☐ Pertsona ezinduen barne sustapena ☐ Personas con discapacidad

2.- Norberaren Datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido		Bigarren deitura / Segundo Apellido		Izena / Nombre	
NAN-ANZ / DNI-NIE		Jaioteguna / Fecha nacimiento		Sexua / Sexo	
				☐ Emakume / Mujer ☐ Gizon / Hombre	
Helbidea: kalea edo plaza, zk., solairua / Dirección: calle, plaza, nº, piso		PK / C P		Zeure telefono mugikorrean notak jaso nahi dituzu? / ¿Desea recibir en su teléfono móvil las notas? Bai / Si ☐ Ez / No ☐	
1.Mugikorra/Móvil		2.Beste telefonoak/Otros teléfonos		Posta elektronikoa / Correo electrónico	
EGOKITZAPENA ADAPTACIÓN		Eskatzen den egokitzapena / Adaptación que se solicita:			
☐ Bai / Si ☐ Ez / No		Baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiari nire desgaitasuna egiaztatzeko, eskatutako egokitzapena bideratu ahal izateko (3/2018 Lege Organikaren 8. X.G.), Pertsona batek desgaitasuna ez badauka BFAk aitortuta, desgaitasun hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Autorizo a la Diputación Foral de Bizkaia a comprobar mi condición en orden a tramitar la adaptación solicitada (D.A. 8ª Ley Orgánica 3/2018). Las personas que no se les haya reconocido esta condición por la DFB, deberán aportar documentación acreditativa.			

3.- Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa aurkezten dut / Aporto la siguiente titulación exigida en las bases específicas
Eskatzen diren beste dokumentu batzuk aurkezten ditut (gidatzeko baimena eta bestelakoak) / Aporto otros documentos exigido/s (permiso de conducir y otros)

4.- Euskara

Euskara azterketa eskatzen dut / Solicito examen de euskera	Hurrengo hizkuntz eskakizun egiaztatzen dut / Acredito el siguiente perfil lingüístico
1HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐	1HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐
Baimena ematen diet BFAri eta HAEeri hizkuntza-eskakizuna Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateriaun egiaztatzeko eta elkarri jakinarazteko. Hizkuntza-eskakizuna 47/2012 Dekretuaren babesean egiaztatu nahi izanez gero, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.	Autorizo a la DFB y al IVAP a su comprobación en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, así como a su mutua comunicación. Quienes pretendan acreditar perfiles lingüísticos al amparo del Decreto 47/2012, deberán aportar la certificación académica correspondiente.
Behaan izenpetzen duenak eskabide honetan aipaturiko hautaketa saioetan eskuhartzea eskatzen du eta aitortzen du benetakoak direla berton adierazitako datuak eta badituela funtzio publikoan sartzeko eskatzen diren baldintzak, bereziki gorago ezarritako deialdiari dagokionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.	La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las especialmente señaladas en la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.
(tokia / lugar)	(urtea / año)
(hilabetea / mes)	(eguna / día)
Sinadura / Firma	

Ahaldun Nagusi jaun txit gorena / Excmo.Sr.Diputado General

☐ Hautaketa-prozesuaren lan-poltsa osatzearren kasuan BFAri baimena ematen diot beste administrazio edo erakunde publiko batzuei nire datuak jakinarazteko, langileak kontratatatzeko dituzten beharrezko kudeaketa-erakunde bakoitzari.	☐ En el supuesto de integrar la bolsa de trabajo del proceso selectivo autorizo a la DFB a comunicar mis datos a otras administraciones o instituciones a los únicos efectos de gestión de sus necesidades de contratación de personal.
Datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarriko informazioa: 2016/679 Erregelamendua (UE) eta 3/2018 DPEDBL.	Información básica tratamiento de datos personales: Reglamento (UE) 2016/679 y LO 3/2018 DPEDBL.
ARDURADUNA: Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia (BFA). Kale Nagusia, 25 (Bilbo)	RESPONSABLE: Dirección General Función Pública (DFB). Gran Vía 25-Bilbao
XEDEA: Hautaketa-prozesuaren eta haren lan-poltsaren kudeaketa, eta langile orlokoa.	FINALIDAD: Gestión del proceso selectivo, su Bolsa de Trabajo y materia de personal.
ESKUBIDEAK: Interesdunak tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzake bere datuetan sartu, datuak zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, eta erabaki indibidual automatizatuen helburu ez izan; horretarako, idazki bat aurkeztu behar du. Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari zuzendua, toki hauetako batean: Egoitza elektronikoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusia, sailetako erregistro orokorrean, Herriarrei Laguntzeko Bulegoetan edo 39/2015 Legean ezarritako lekuetan. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.	DERECHOS: Ejercer ante el responsable los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: Sede Electrónica, Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia y Registros Generales Departamentales, Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana y lugares previstos en la Ley 39/2015. También tiene derecho a reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos.
Argibide gehiago: http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?idioma=EU&Tem.Codigo=152&Dep=7	Para más información: http://www.bizkaia.eus/herri_administrazioa/ope/oferta_publica.asp?idioma=CA&Tem.Codigo=152&Dep=7

**Jarraibide orokorrak**

- a) Ale guztietan datuak argi irakur daitezkeela ziurtatu.
- b) Ez ezazu orririk tolestu eta zuzenketa, hobekuntza edo ezabaketarik egin.
- c) Interesduna hautaketa-prozesuan onartua izateak prozesuan eskainitako plaza guztietan parte hartzea eragingo du, plaza bakoitzari ezarritako hizkuntz eskakizuna eta eskakizuna nahitaezkoa den edo ez alde batera utzita, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.
- d) Inprimakia izenpetu egin behar duzu.

Interesatuarentzako jarraibideak

- a) Deialdiaren oinarrien arabera, eskaerarekin batera, dagokion titulu akademikoa edo hura lotzeko modua baduzula egiaztatzeko dokumentazioa eta oinarrietan eskatutako gainerako agiriak aurkeztu beharko dituzu.
- b) Aurkeztu beharko dira oinarri berezietan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen dituzten dokumentutak (gidabaimena...).
- c) Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartuko duten hautagaiek ez dute inolako ziurtagiririk aurkeztu behar, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak desgaitasuna aitortua badie. Zer txandatan parte hartzen duten besterik ez dute adierazi behar, eta, horretarako, baimena eman behar diote beren-beregi Bizkaiko Foru Aldundiari egoera hori Desgaitasuna Ebaluatzeko Atalean egiaztatu dezan. BFAk ez badio desgaitasuna aitortu, interesdunak duen desgaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- d) Lehiaketa-oposizioetan, merezimenduak horretarako beren-beregi prestatutako erduan aurkeztu behar dira.

Barne-igoerako txandetan (txanda arrunta izan zein desgaitasuna duten pertsonena) parte hartzen duten hautagaiek edo bitarteko funtzionarioek, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako "Hautapen-prozesurako datuen ziurtagiria" baino ez dute aurkeztu beharko. Hautagai bakoitzak bere erregistro pertsonalean eskura dezake ziurtagiri hori.

Hala ere, ziurtagiri horretan agertzen ez diren betekizunak eskaera-orrian agerrarazi beharko dira, hala egiten ez bada ezinezkoa izango baita hautaketa-prozesuan parte hartzea betekizun hori falta bada.

Merezimenduen kasuan, eskaera-orrian aipatu beharko dira ziurtagirian agertzen ez diren merezimenduak, bestela ezin izango baitira baloratu.

Instrucciones generales

- a) Asegúrese de que los datos resultan claramente legibles en todos los ejemplares.
- b) Evite doblar el papel y realizar correcciones, enmiendas o tachaduras.
- c) La admisión en el proceso selectivo de la persona interesada implica su participación en él para todas las plazas ofertadas, con independencia del perfil lingüístico asignado a las mismas y de su carácter preceptivo o no preceptivo, de conformidad con las bases rectoras.
- d) No olvide firmar el impreso.

Instrucciones para la persona interesada

- a) Según las bases de la convocatoria deberá aportar junto con la instancia, el título académico correspondiente o documentación acreditativa de estar en condiciones de obtenerlo, así como aquellos otros que se exigieran en las mismas
- b) Se deberán aportar aquellos documentos que acrediten los requisitos exigidos por las bases específicas (permiso de conducción....etc).
- c) Los y las aspirantes que participen por el turno de personas con discapacidad que hayan sido declaradas por la Diputación Foral de Bizkaia no deberán aportar nada, simplemente indicar el turno por el que participa, para lo cual la persona participante autoriza expresamente a la Diputación Foral de Bizkaia a su comprobación en la Sección de Valoración de la Discapacidad. Las personas a quienes no se les haya reconocido esta condición la DFB, deberán aportar la documentación acreditativa.
- d) En el supuesto de concurso-oposición los méritos se alegan en el modelo específico ("Hoja de Méritos").

Las personas que participen por alguno de los turnos de promoción interna (ordinario y de personas con discapacidad), o sean funcionarias interinas, únicamente deberán aportar el "Certificado de datos para procesos selectivos" expedido por el Servicio de Gestión de Personal, y que cada aspirante podrá obtenerlo en su Registro Personal.

No obstante, cualquier requisito no incluido en dicho certificado deberá constar en la instancia, ya que de lo contrario no se podrá participar en el proceso selectivo en el caso de falta del mismo.

En el supuesto de méritos, de igual modo deberán alegarse en la instancia aquellos que no aparezcan en dicho Certificado, ya que, en caso contrario, no podrán ser valorados.



Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

**Merezimenduak / Méritos****2. Norberaren datuak / Datos personales**

NAN / DNI	Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre
Eskala / Escala	Especialitatea / Especialidad		

Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

tokia / lugar	urtea / año	hilabetea / mes	eguna / día
n, 201		(e)ko	k
Sinadura / Firma			



Bete baino lehen, arretaz irakurri atzeko aldea
Antes de cumplimentar, lea con atención la parte de atrás

**Merezimenduak / Méritos****2. Norberaren datuak / Datos personales**

NAN / DNI	Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena / Nombre
Eskala / Escala	Especialitatea / Especialidad		

Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

1)
2)
3)
4)
5)
6)
7)
8)
9)
10)
11)
12)
13)
14)
15)
16)
17)
18)
19)
20)

tokia / lugar	urtea / año	hilabetea / mes	eguna / día
n, 201		(e)ko	k
Sinadura / Firma			

**Alegatutako merezimenduak**

Eskaera-orriari ondokoak batu beharko zaizkio nahitaez:

- a). Nortasun agiri nazionalaren edo, atzerritarra izanez gero, horren baliokidea den agiriaren fotokopia.
- b). Barne igoerako sistemaren bidez parte hartzen duten hautagaiek Foru Aldundiko Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, hautagaiak karrerako funtzionario legeaz bete dituen zerbitzuei buruzko datuak (eskala, azpieskala eta, hala denean, mota eta espezialitateak aipatuz) egiaztatuko dituena.
- c). Deialdiaren oinarri berezietan eskaturiko titulua edo hura lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- d). Hala badagokio, deialdiaren oinarri berezietan adieraziko den gidabaimenaren jabe izatea, nahitaez eskabidearekin batera aurkeztu beharko dena.
- e). Alegatutako merezimenduen zerrenda.

Merezimenduak egiaztatzea

Oposizio aldia gainditzen dutenek 10 egun balioduneko epea izango dute, azken ariketa gainditu duten hautagaien zerrenda argitaratu eta biharamunetik zenbatuta, eskaera-orrian aipatu zituzten merezimenduen egiaztagiria aurkezteko. Horretarako, oposizio aldia gainditu duten hautagaien zerrendarekin batera eskaera-orrian aipatutako merezimenduen egiaztagiria aurkezteko epea zein egunetan amaitzen den argitaratuko da. Lehiaketa aldia baloratzeko orduan, epe horren barruan eta hurrengo lehenaldian zehaztuko den moduan eta tokietan aurkeztutako agiriak baino ez dira kontuan hartuko.

Interesdunek jatorrizko agiriak eta agiri horien kopiak aurkeztu beharko dituzte, egiaztatzeko, edo, bestela, horretarako beren beregiko eskumena duen organoak behar bezala egiaztatutako kopia. Agiriak Bizkaiko Foru Aldundiko sailerako erregistro nagusietan edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetako edozeinetan aurkeztuko dira. Betekizun eta baldintza horiek beteta, agiriak aurkeztu ahal izango dituzte, kautelaz, oposizio aldia gainditu ez duten eta errekursoak aurkeztu duten pertsonen, errekurso horri buruzko ebazpenak hasierako aldi hori gainditzea ekar badezake.

Alegación de méritos

A la instancia se acompañará necesariamente:

- a). Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o documento equivalente en caso de ser extranjero.
- b). Los y las aspirantes que participen por el sistema de promoción interna deberán aportar certificación expedida por el Servicio de Gestión de Personal de la Diputación Foral, en la que se acrediten los datos referidos a los servicios prestados en el funcionamiento de carrera en las correspondientes Escalas, Subescalas y, en su caso, Clase y Especialidad.
- c). El título o los derechos abonados para obtenerlo, exigido en las Bases Específicas de la convocatoria.
- d). En su caso, estar en posesión del permiso de conducción en vigor que se indique en las Bases Específicas de la convocatoria y que deberá acompañar necesariamente a la instancia.
- e). Relación de méritos alegados

Acreditación de méritos

Los y las aspirantes que hayan superado la fase de oposición dispondrán de un plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de publicación de las relaciones de aspirantes que hayan superado la última prueba para presentar la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. A estos efectos, junto con la relación de aspirantes que haya superado la fase de oposición se publicará la fecha de finalización del plazo de presentación de la documentación acreditativa de los méritos alegados en la instancia. Solo será tenida en cuenta, a la hora de valorar la fase de concurso, la documentación presentada en el citado plazo y del modo y en los lugares que, al efecto, se determinan en el párrafo siguiente.

Las personas interesadas deberán aportar, para su cotejo, documentación original junto con copia de la misma o, en su caso, copia debidamente cotejada por órgano competente al efecto. La presentación se realizará bien en cualquiera de los Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia; bien en cualquiera de los lugares previstos por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992. Con los mismos requisitos y condiciones podrá presentar la documentación, de forma cautelar, aquellas personas que, no habiendo superado la fase de oposición, hubieran presentado recurso cuya resolución pudiera implicar la superación de dicha fase inicial.



I ERANSKINA / ANEXO I

Aurretiazko Zerbitzuen Ziurtagiria / Certificación de Servicios Previos

 Bizkaia <i>foru aldundia</i> <i>deputación foral</i>	N.A.N. / D.N.I.

Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellidos	Izena / Nombre
Destinoa / Destino	Herria / Localidad	Probintzia / Provincia

Kidego, eskala, plaza edo plantilan egindako zerbitzuak Servicios prestados en cuerpo, escala, plaza o plantilla	Lotura Vínculo (1)	Noiztik / Desde			Noiz arte / Hasta			Guztira / Total			Proporzionaltasun maila Nivel de proporcionalidad
		Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	Eguna Día	Hila Mes	Urtea Año	

Goiko datuak horrelaxeokak direla ziurtatzen dut, horiek burutza honen esku dauden aurrerakinekin bat daude eta.
Certifico la exactitud de los datos anteriores, que concuerdan con los antecedentes obrantes en esta jefatura.

Bilbao 2008
(e)an
Pertsonaleko Burua /El-La Jefe/a de Personal,

(1)
C - Karrera funtzionaria / Funcionario de carrera
P - Praktiketako funtzionaria / Funcionario en prácticas
E - Aldertako enpleguko funtzionaria / Funcionario empleo interino
V - Inoizkako enpleguko funtzionaria / Funcionario empleo eventual
L - Lan kontratua / Contrato laboral
A - Kontratu administratiboa / Contrato administrativo

Dokumenturik egin gabe egindako zerbitzuen kasurako, zuzenbidez onartutako frogabideak.
Medios de prueba admitidos en derecho para el caso de prestación de servicios no formalizados documentalmente

Bilbao
(lugar) (año) (mes) (día)
Bilbon .eko (e)(a)n
Pertsonaleko Burua /El- La Jefe/a de Personal,

**LEHIAKETA-OPOSIZIOA****HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO
SARTZEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN,
AZPIESKALA TEKNIKOAN. MOTA: ARKITEKTURA TEKNIKOA****OINARRI BEREZIAK****1. Deialdian eskainitako plazak**

Arkitekto teknikoen bederatzi (9) plaza eskaintzen dira deialdian (A-2 titulazio-azpitaldekoak), lehiaketa-oposizioaren bidez betetzekoak. Plazok derrigorrezko III. hizkuntza eskakizuna dute, eta txanda hauetan banatuta daude:

- Txanda librea:
 - Zortzi (8) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.
- Desgaitasuna duten pertsonen txanda:
 - Plaza bat (1), derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, haxe da eskatzen den titulazioa: Arkitekto teknikoak, Eraikuntzaren Ingeniaritzako Gradua, Arkitektura Teknikoko Gradua, edo baliokidea.

3. Berariazko betekizunak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, berariazko betekizuna izango da IT txartel hauek edukitzea: Word Oinarrizkoa eta Excel Oinarrizkoa (baliadunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuko eta Excel aurreratuko IT txartelak oinarrizko Word eta oinarrizko Excel-enak baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Horretarako, sei (6) hilabeteko epea ematen da, deialdi hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dena.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu Tecnaliarekin ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten. Aipatu behar da 2020ko apirilaren 17an EHAAk argitaratu zela lehengo «Tecnalia Fundazioa» xurgatzen duen «Tecnalia Research & Innovation fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zela.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta, ondorioz, ez da sartuko prozesuaren ondoren osatuko den lan-poltsan.

4. Hautaketa-prozedura

4.1. Izangaia aukeratzeko, lehiaketa-oposizioa erabiliko da.

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu; guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailak.

4.1.1. *Lehenengo ariketa*: 80 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), bi (2) orduan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Agiri honen II. eranskin gisa datorren gai-zerrendan jasotako gaiei buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira.

4.1.2. *Bigarren ariketa*: Kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira idatziz; kasuok plazaren eginkizunei lotuak izango dira, eta II. eranskinean jasotako gai-zerrendako zati guztietakoak izango dira, salbu I. zatikoak. Ariketa egiteko lau (4) ordu egongo dira gehienez ere.

4.1.3. *Hirugarren ariketa*: euskararen III. hizkuntza eskakizunari dagokion jakite-maila zehaztu eta egiaztatu beharko da.



Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Halakoetan, parte-hartzaileak berariaz emango dio baimena Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztagiria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. Lehiaketa:

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketa-fasearen kalifikazioa lortzeko, merezimenduen baremoaren —I. eranskina— arabera emandako puntuak batuko dira.

5.2. Oposizio-fasea:

- a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gaitututako pertsonen kopurua ez bada iristen 27ra, puntuaziorik handiena lortu duten 27 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketak-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketak-nota bera duten hautagai guztiek gaitututako dute ariketa hau.
- b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiek berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketari, euskarari buruzkoari, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Gainerako kasuetan, honako banaketa honen arabera kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:
 - I. hizkuntza-eskakizuna: 1,25 puntu.
 - II. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
 - III. hizkuntza-eskakizuna: 3,75 puntu.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Lehenengo ariketa gaitutitzen duten pertsonekin osatuko da lan-poltsa, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera (hau da, bigarren ariketara pasatzen diren guztiekin).

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA****ESPEZIALITATEA: ARKITEKTO TEKNIKO A**

1. Administrazio Publikoan arkitekto tekniko plaza batean (A-2 titulazio-azpitaldean) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoetan: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko. Gehienez:

3 puntu.

Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

2. Administrazio publikoetan, Administrazio Publikoko eskoletan (IVAP, INAP, IEAP edo administrazioko beste eskola batzuen), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaiekin zuzen-zuzenean zerikusia duten prestakuntzako ikastaroetan eta/edo titulazio akademikoetan emandako edota jasotako ordu-kopurua, baldin eta ikastarook baldintza legez ez badute plazan sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza edo titulazioa izatea; 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,020 puntu emandako ordu bakoitzeko. Gehienez:

1,5 puntu.

3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakitea, baina hizkuntzaren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe eta guztira gehienez lor daitekeelarik,

0,5 puntu.

Banaketa honen arabera:

- a) Europako erreferentzia-markoko B-1 maila (besteak beste: Ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; edo alemana: Goethe Institutuaren ZAP-Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarritzko zikloa edo B1.2.: 0,150 puntu.
- b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila (besteak beste: Ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: Goethe Institutuaren ZMP-Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL-Diplôme de Langue-Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,300 puntu.
- c) Europako erreferentzia-markoko C-1 maila (besteak beste: Ingelesa: Cambridgeko Certificate in Advance English agiria edo Cambridgeko Unibertsitateko Certificate of Proficiency in English agiria edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve agiria edo Oxfordeko Unibertsitateko Higher Level agiria; edo alemana: ZOP-Zentrale Oberstufenprüfung edo KDS-Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS-Grosses Deutsches Sprachdiplom agiria; edo frantsesa: Alliance Françaiseren DALF edo DSLCF-Diplôme Supérieur Langue agiria) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Europar Batasuneko edozein hizkuntzarako Filologiako lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-agiria): 0,500 puntu.

Guztira: 5 puntu.

**II. ERANSKINA****I. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundearen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetzaren printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakundearen eta lurralde historikoetako foru-entzuen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakundearen eta lurralde historikoetako foru-entzuen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzario eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru Ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta Foru Ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

8. gaia: Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: Xedapen orokorrak.

9. gaia: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

10. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

11. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Beteazgarritasuna eta etetea. Beteazgarritasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egin-tzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

12. gaia: Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

13. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

14. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua, I. kapitulua, 1. atala, Xedea eta aplikazio-eremua: 1-3 artikulua, bi horiek barne, eta 2. atala, Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak: 4, 6 eta 11. artikulua. Atariko titulua, II. kapitulua, 1. atala, Kontratu motak zedarritzea: 12-18 artikulua, bi horiek barne.

15. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

16. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarriak: Atariko titulua. I. titulua: Herriararen eta Herri Agintaritzaren eskubide eta egin-beharrak hizkuntzaren alorrean.

17. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebeharrak ekonomikoak).



18. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahalduen Nagusia.

19. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru Arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

20. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa: Zioen azalpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa: hitzaurrea eta atariko titulua eta I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

21. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikusegia txertatzeko neurriak.

22. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5. artikulua), ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua).

II. ZATIA

23. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, Eraikintza Arautzekoa. Xedapen orokorrak. Eraikintzaren eskakizun teknikoak eta administratiboak. Eraikuntzako eragileak. Erantzukizunak eta bermeak.

24. gaia: 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikintzaren Kode Teknikoa (EKT) onestekoa. Xedapen orokorrak. Baldintza tekniko eta administratiboak. Oinarritzko eskakizunak. Oinarritzko dokumentu bakoitzaren aplikazio-esparrua eta aplikatzeko irizpide orokorrak.

25. gaia: EKT HZ OD, Zarataren kontrako babesa: Alderdi orokorrak. Eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa. Diseinua eta neurriak ezartzea. Eraikuntza-produktuak. Eraikuntza. Mantentze- eta kontserbazio-lanak.

26. gaia: EKT SS OD, Suteetatik babesteko segurtasuna: Barrutik hedatzea; Kanpotik hedatzea; Erabiltzaileak ebakutzatzea; Suteetatik babesteko instalazioak; Suhiltzaileen lana; Egiturak suaren aurka duen erresistentzia.

27. gaia: EKT ESI OD, Erabileraren Segurtasuna eta Irigarritasuna: Erortzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Kolperen bat hartzeko edo harrapatuta geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Esparruetan itxita geratzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Argiztapen desagokiak eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Jendetza biltzen den egoerek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Itotzeko arriskutik babesteko segurtasuna; Mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Tximistek eragindako arriskutik babesteko segurtasuna; Irigarritasuna.

28. gaia: EKT HO OD. Osasungarritasuna. HO1 Hezetasunaren kontrako babesa. HO2 Hondakinak jasotzea eta hustea. HO3 Barruko airearen kalitatea. HO4 Ur-hornidura. HO5 Urak hustea. HO6 Radonarekiko esposizioaren kontrako babesa.

29. gaia: EKT HE OD. Energia aurrezteak. HE0 Energia-kontsumoa mugatzea. HE1 Energia-eskaria kontrolatzeko baldintzak. HE2 Instalazio termikoen baldintzak. HE3 Argiztapen-instalazioen baldintzak. HE4 Energia berriztagarriaren gutxienezko etxeko ur beroaren eskarirako. HE5 Energia elektrikoaren gutxienezko sortzea.

30. gaia: 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duena.

31. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna Sustatzekoa. Helburua eta aplikazio-eremua. Irigarritasuna bermatzeko neurriak. 366/2007 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez ezartzen baitira desgaitasuna duten pertsonen irigarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Estatuko Administrazio Orokorrarekin



dituzten harremanetan: irisgarritasuna herritarren arretarako bulegoetan. 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak onesten dituen, desgaitasuna duten pertsonen espazio publiko urbanizatu-tara eta eraikuntzetara iritsi eta haiek erabili ahal ditzaten: irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak eraikuntzetara iritsi eta haiek erabili ahal izateko.

32. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. I. eranskina. Parametro antropometrikoak; II. eranskina. Hiri inguruneen irisgarritasun-baldintza teknikoak; III. eranskina. Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak; IV. eranskina. Komunikaziorako irisgarritasuna; V. eranskina. Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obra urbanizazio eta eraikinetan. (EHAA, 2000ko ekainaren 12koa, eta eranskinak).

33. gaia: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko. II. kapitulua: Autobabes-betebeharrak; III. kapitulua: Autobabes-planak.

34. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena. Xedea eta helburuak. Definizioak. Aplikazio-eremua. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta -materialak ekoizten dituzten pertsonen betebeharrak. Fidantza. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta -materialak ekoizten dituzten pertsonen betebeharrak. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen jabe diren pertsonen betebeharrak. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak bereiztea. Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzen dituzten pertsonen betebeharrak. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak balorizatzeko jarduerak. Erantzukizun administratiboa eta zehapen-araubidea. Xedapen gehigarriak, iragankorra eta amaierako xedapenak.

35. gaia: 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Terminoaren Araudia onesten duena (I). Xedapen orokorrak. Eskakizun teknikoak. Baldintza administratiboak. Instalazio termikoak exekutatzeke baldintzak. Instalazioa martxan jartzeko baldintzak. Instalazioa erabiltzeko eta mantentzeko baldintzak. Eraikinak (II). IT 1.1.4.1: Ingurugiroaren kalitate termikoaren eskakizuna. IT 1.1.4.2: Barrualdeko airearen kalitatearen eskakizuna. IT 1.1.4.3.1: erabilera sanitarioarako ur beroa prestatzea. IT 3.8: tenperaturak mugatzea. IT 4: Ikuskapena.

III. ZATIA

36. gaia: Kultura-ondarea. Kontzeptua eta hedadura. Kultura-ondarearen arauketaren aurrekariak. Gaiari buruzko eskumenen banaketa. Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen eta toki-erakundeen eskumenak. Indarrean dagoen araudia-ren oinarri diren printzipioak: 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa, eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legea.

37. gaia: Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitze. Babestutako jarduerak. 317/2002 Dekretua, abenduaren 31koa. Birgaitze integratuko areak, plan bereziak eta birgaitzeko hirigintza-sozietateak. I., II. eta III. eranskinak, 317/2002 Dekretua, abenduaren 31koa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.

38. gaia: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra. Xedea eta helburuak. EAEko ingurumen-politikari buruzko xedapen orokorrak. Ingurumen-baliabideen babesa. Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua. Jarduera sailkatuak. Ingurumen-diziplina.

39. gaia: Zarata eta kutsadura akustikoa: 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zarata-rena. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

40. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena.



41. gaia: Sustapen-teknikak: ingurumen-fiskalitatea, dirulaguntzak, eta erosketa eta kontratazio publiko berdea.

42. gaia: Garapen iraunkorra (www.un.org). Europa 2020: hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailerako estrategia. Euskadi Basque Country 2030 Agenda (www.euskadi.eus). Tokiko 2030 Agenda (www.ihobe.eus).

43. gaia: 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa. Xedapen orokorrak. Erantzukizunak esleitzea. Ingurumen-kalteen prebentzioa, saihestea eta konponketa. Arau-haustea eta zehapenak. 2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez onartzen baita 2007ko urriaren 23ko Ingurumen Erantzukizunaren 26/2007 Legea partez garatzeko erregelamendua. Xedapen orokorrak. Ingurumen-kalteen konponketa.

44. gaia: 41/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzkoa. 2. artikulua. Sailkapena. I. eranskina: Gizarte zerbitzu guztientzako baldintza materialak eta funtzionalak. II. eranskina: egoitzetarako baldintza material eta funtzional bereziak. suaren aurkako babes-neurriak, arkitektura- eta hirigintza-oztopoak, instalazio elektrikoa, higiene-zerbitzuak, alderdi komunak, logelak, taldeko jantokiei buruzko teknika eta osasun mailako araudia, osasun eremua, hileta-tokia. III. eranskina: etxebizitza komunitarioentzako baldintza material eta funtzional bereziak. IV. eranskina: babestutako apartamentuentzako baldintza material eta funtzional bereziak. kokapena, edukiera, apartamentuen azalera, ekipamendua, elkar-komunikaziorako sistema, telefonia, suteen aurkako gutxieneko instalazioak.

45. gaia: 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa. II. kapitulua: eskakizun materialak, lehenengo xedapen iragankorra, bigarren xedapen iragankorra.

46. gaia: 202/2000 Dekretua, urriaren 17koa, laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzkoa. I. eranskina: laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentrozen kalitatezko baldintza materialak eta funtzionalak: kokapena, banaketa espaziala, instalazioak.

47. gaia: 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen. I. kapitulua. 2 artikulua: sailkapena, II. kapitulua II. atala, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako berehalako harrera-zerbitzuen baldintza materialak. III. kapitulua II. atala, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera etxebizitzaren baldintza materialak. IV. kapitulua II. atala, etxeko eremuan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-zentrozen baldintza materialak.

48. gaia: 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua. I. titulua. 6 artikulua: Egoitza-harrerako baliabideen tipologia. III. titulua Egoitza harrerako baliabideetako baldintza materialak.

49. gaia: 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa. IV. kapitulua: Haurren garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroak, 23. artikulua: betekizun materialak.

IV. ZATIA

50. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena. Xedapen orokorrak eta herritarrek konstituzioko eskubide eta eginbeharretan duten berdintasunaren oinarritzko baldintzak. Herritarren oinarritzko estatutua. Hirigintza-jarduerako ekimenaren eta parte-hartzearen oinarritzko estatutua.

51. gaia: EAEko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, eta 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa. Hirigintzaren printzipio orokorrak Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa. Hiri-lurzoruaren araubidea:



urbanizagarria eta ez-urbanizagarria. Hirigintza-antolamenduaren eremuak. Hirigintza-antolamendu xehatua eta egiturazko antolamendua. Hirigintzako planak. Plan motak eta haien arteko hierarkia.

52. gaia: Ondasun higiezinaren balioespena. Balioespenari buruzko kontzeptu orokorrak. Xedearen arabeko balioespena. Balioespen-metodoak. Balioespen-metodoen ezaugarri orokorrak. Balioespen-metodoa aukeratzea.

53. gaia: Hirigintzako balioespenak. Balioztatzeko irizpideak 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren eta Lurzoruaren Legeko balioztatzeei buruzko Erregelamenduaren —1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa— arabera.

54. gaia: Balioespen fiskalak. Balio-egiaztapena Zergari buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan (55. artikulua, 127. eta 128. artikulua), Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauan (II. kapitulua Balio-egiaztapena), eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 2015eko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauan. Peritutasazioa. (V. kapitulua Balio-egiaztapena).

55. gaia: 3/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa.

56. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamendua onesten duena.

57. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 163/2013 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, zeinaren bidez onartzen baitira hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak.

58. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 168/2014 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa, landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituena.

59. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2018 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bidez onartzen baitira ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa finkatzeko arau teknikoak.

60. gaia: Jabetzaren kontzeptua. Jabetzaren kontzeptua. Jabetza horizontala. Zerbitzu eta instalazio erkideak. Jabeen eskubideak eta betebeharrak. Ondasun higigarriak. Ondasun higiezinak. Jabetza publikoko ondasunak. Jabetza pribatuko ondasunak.

61. gaia: Eskubide errealak: kontzeptua eta sailkapena. Gozamenezko eskubide errealak: gozamen-eskubidea, erabilera- eta biztantzaren eskubidea, zortasun, azalera eta kontzesioa. Zortasunak: Kontzeptua. Motak: zortasunon subjektu titularren arabera, gauzen arabera, kanpo-indizedun zeinuen arabera, haien arteko lotura, jatorriaren edo ezartzeko moduen arabera. Zortasunpeko lurra. Lur nagusia. Eskubideak eta betebeharrak. Gozamen-eskubidea: kontzeptua.

62. gaia: Hasiera eta azkentzea. Gozamen-eskubide legala eta borondatezkoa. Gozamendunaren eskubide eta betebeharrak. Erabilera-eskubidea. Biztantzaren eskubidea.

**LEHIAKETA-OPOSIZIOA****HAUTAPROBETARAKO DEIALDIA, KARRERAKO FUNTZIONARIO SARTZEKO
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALAN, AZPIESKALA TEKNIKOAN.
MOTA: LANEKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE-DIPLOMADUNA****OINARRI BEREZIAK****1. Deialdian eskainitako plazak**

Laneko erizaintzako unibertsitate-diplomadunen bi (2) plaza eskaintzen dira deialdian (A-2 titulazio-azpitaldekoak), lehiaketa-oposizioaren sistemaren bidez betetzekoak. Plazak derrigorrezko III. hizkuntza eskakizuna dute.

— Txanda librea:

- Bi (2) plaza, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, hauxe da eskatzen den titulazioa: Erizaintzako unibertsitate-diplomatura, Erizaintzako gradua edo baliokidea, eta Laneko Erizaintzako espezialitatea edo Enpresako Erizaintzako diploma.

3. Berariazko betekizunak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDaren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, berariazko betekizuna izango da IT txartel hauek edukitzea: Word Oinarritzkoa eta Excel Oinarritzkoa (baliadunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuko eta Excel aurreratuko IT txartelek oinarritzko Word eta oinarritzko Excel-enak baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Horretarako, sei (6) hilabeteko epea ematen da, deialdi hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dena.

Izangaiek ez dute agiririk aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu Tecnaliarekin ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten. Aipatu behar da 2020ko apirilaren 17an EHAAn argitaratu zela lehengo «Tecnalia Fundazioa» xurgatzen duen «Tecnalia Research & Innovation fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zela.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta, ondorioz, ez da sartuko prozesuaren ondoren osatuko den lan-poltsan.

4. Hautaketa-prozedura**4.1. Izangaiek aukeratzeko, lehiaketa-oposizioa erabiliko da.**

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu; guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailak.

4.1.1. Lehenengo ariketa: 80 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), bi (2) orduan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haietariko bat bakarrik izango da zuzena. Agiri honen II. eranskin gisa datorren gai-zerrendan jasotako gaiei buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da, baina erantzun oker bakoitzeko 0,33 puntu kenduko dira.

4.1.2. Bigarren ariketa: Kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira idatziz; kasuok plazaren eginkizunei lotuak izango dira, eta II. eranskinean jasotako gai-zerrendako zati guztietakoak izango dira, salbu I. zatikoak. Ariketa egiteko lau (4) ordu egongo dira gehienez ere.

4.1.3. Hirugarren ariketa: euskararen III. hizkuntza eskakizunari dagokion jakite-maila zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Bizkaiko Foru Aldundian III. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztatutik ageri direnek ere.



Halakoetan, parte-hartzaileak berariaz emango dio baimena Bizkaiko Foru Aldundiari erregistro horretan egiaztapena egin dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztagiria edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badute III. hizkuntza-eskakizuna, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko da.

4.2. Lehiaketa:

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, hautagai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketa-fasearen kalifikazioa lortzeko, merezimenduen baremoaren —I. eranskina— arabera emandako puntuak batuko dira.

5.2. Oposizio-fasea:

- a) Lehenengo ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak baztertuta geratuko dira. Hala ere, gainditutako pertsonen kopurua ez bada iristen 6ra, puntuaziorik handiena lortu duten 6 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (haien puntuazioa 2 puntutik gorakoa bada); horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketa-puntuan berdinketa gertatuz gero, mozketa-nota bera duten hautagai guztiek gaindituko dute ariketa hau.
- b) Bigarren ariketari zerotik (0) hamar (10) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta bost (5) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.
- c) Hirugarren ariketan gai edo ez gai baino ez dute lortuko azterketa egiten dutenak; gai kalifikazioa lortzen ez duten izangaiak berez geratuko dira baztertuta.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntu guztien batura izango da.

6. Lan-poltsa

Lehenengo ariketa gainditzeko duten pertsonekin osatuko da lan-poltsa, bosgarren oinarrian xedatutakoaren arabera (hau da, bigarren ariketara pasatzen diren guztiekin).

**I. ERANSKINA****MEREZIMENDUEN BAREMOA****ESPEZIALITATEA: LANEKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE-DIPLOMADUNA**

1. Enpresa edo laneko osasun-laguntzaile tekniko/erizaintzako unibertsitate-diplomadun (A-2 titulazio-azpitaldea) lanpostuan egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoak: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko. Gehienez: 3 puntu.
- Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.
2. Administrazio publikoetan, Administrazio Publikoko eskoletan (IVAP, INAP, IEAP edo administrazioiko beste eskola batzuen), nortasun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein pribatuetan gaiekin zuzen-zuzenean zerikusia duten prestakuntzako ikastaroetan eta/edo titulazio akademikoetan emandako edota jasotako ordu-kopurua, baldin eta ikastarook baldintza legez ez badute plazan sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza edo titulazioa izatea; 0,0125 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,020 puntu emandako ordu bakoitzeko; Gehienez: 1,5 puntu.
3. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakiteagatik, baina hizkuntzaren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe. Gehienez lor daiteke 0,5 puntu.
- Banaketa honen arabera:
- a) Europako erreferentzia-markoko B-1 maila (besteak beste: Ingelesa: Trinity College-n ingeleseko Grade 9 agiria; edo alemana: Goethe Institutuaren ZAP-Zertifikat Deutsch als Fremdsprache agiria, edo frantsesa: DELF 1er degré maila) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarrizko zikloa edo B1.2.: 0,150 puntu.
- b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila (besteak beste: Ingelesa: Cambridgeko First Certificate of English agiria; edo alemana: Goethe Institutuaren ZMP-Zentrale Mittelstufenprüfung agiria, edo frantsesa: DELF 2ème degré. DL -Diplôme de Langue-Alliance Française) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua: 0,300 puntu.
- c) Europako erreferentzia-markoko C-1 maila (besteak beste: Ingelesa: Cambridgeko Certificate in Advanced English agiria edo Cambridgeko Unibertsitateko Certificate of Proficiency in English agiria edo Trinity Collegeko Passed Grade Twelve agiria edo Oxfordeko Unibertsitateko Higher Level agiria; edo alemana: ZOP-Zentrale Oberstufenprüfung edo KDS-Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS-Grosses Deutsches Sprachdiplom agiria; edo frantsesa: Alliance Françaiseren DALF edo DSLCF-Diplôme Supérieur Langue agiria) eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo Europar Batasuneko edozein hizkuntzako Filologiako lizentziatura (goi-mailako unibertsitate-agiria): 0,500 puntu.

Guztira: 5 puntu.

**II. ERANSKINA****I. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarritzko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundearen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetzaren printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakundearen eta lurralde historikoetako foru-erakundearen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakundearen eta lurralde historikoetako foru-erakundearen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzario eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru Ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta Foru Ogasunaren arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

8. gaia: Espainiako toki-araubidea. Konstituzio-printzipioak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: Xedapen orokorrak

9. gaia: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldundiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea.

10. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

11. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Beteazgarritasuna eta etetea. Beteazapena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egin-tzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

12. gaia: Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

13. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

14. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua, I. kapitulua, 1. atala, Xedea eta aplikazio-eremua: 1-3 artikulua, bi horiek barne, eta 2. atala, Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak: 4, 6 eta 11. artikulua. Atariko titulua, II. kapitulua, 1. atala, Kontratu motak zedarritzea: 12-18 artikulua, bi horiek barne.

15. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

16. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarritzko: Atariko titulua. I. titulua: Herriararen eta Herri Agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntzaren alorrean.

17. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebeharrak ekonomikoak).



18. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahalduen Nagusia.

19. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru Arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

20. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Zioen azalpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: hitzaurrea eta atariko titulua eta I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

21. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikusegia txertatzeko neurriak.

22. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5. artikulua), ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua).

II. ZATIA

23. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. I. kapitulua: Xedea, aplikazio-esparrua eta definizioak.

24. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. II. kapitulua: Politikaren helburuak. Erregelamenduzko arauak. Lan-arloan eskumena duten administrazio publikoen jarduketak. Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza. Osasun-arloan eskumena duten administrazio publikoen jardunak Koordinazio administratiboa.

25. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. III. kapitulua: Eskubi-deak eta betebeharrak.

26. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. IV. kapitulua: Prebentzio-zerbitzuak. V. kapitulua: Langileen kontsulta eta parte-hartzea.

27. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea. VII. kapitulua: Erantzukizunak eta zehapenak, eta geroko aldaketak (5/2000 Legearen Testu Bategina, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzkoa).

28. gaia: 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena. II. kapitulua: Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jarduaren plangintza. VI. kapitulua: Eginkizunak eta kualifikazio-mailak. VII. kapitulua: Estatuko Osasun Sistemako prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan aritzea.

29. gaia: 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduna garatzeko baliabideen antolaketari buruzko oinarritzko irizpideak ezartzen dituena: Helburua eta aplikazio-eremua. Osasun-baimena. Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak. Giza baliabideak. Baliabide materialak: Prebentzio-zerbitzu propioek jarduerak azpikontratatzeko. Datu pertsonalen babesa.

30. gaia: 306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, aurrezaintzako zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduerak sanitarioak arautzen dituena.

31. gaia: Lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloko nazioarteko zein nazioko erakunde eginkizuna: Lanaren Nazioarteko Erakundea. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionala. Osalan.

32. gaia: 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norberaren babesarako ekipoak erabiltzeko buruzko segurtasun eta osasuneko gutxienezko xedapenei buruzkoa.



33. gaia: 1299/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta haien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen dituen, eta haren geroko eguneratzeak.

34. gaia: 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena. Aldi baterako ezintasunaren eta birgaixotzearen kontzeptuak. Ezintasun iraunkor kontributiboaren kontzeptua eta graduak. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa.

III. ZATIA

35. gaia: Laneko segurtasuna: definizioa eta arrisku-faktore nagusiak.

36. gaia: Lan-istripuak: kontzeptua. Lan-istripuak ikertzeko metodoak. Arrazoiak zehaztea eta sailkatzea. Prebentzio-neurriak.

37. gaia: Higiene industrial. Higiene industrialaren definizioa, historia eta praktika.

38. gaia: 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, langileek lanean agente kimikoaren eragina dela-eta izan ditzaketen arriskuetatik babesteari buruzkoa. Helburua eta aplikazio-eremua. Definizioak. Arriskuen ebaluazioa. Osasunaren zaintza. Istripu, gorabehera eta larrialdietan hartu beharreko neurriak. Langileentzako informazioa prestakuntza.

39. gaia: 664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, langileek lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteko.

40. gaia: Laneko ergonomia: definizioa eta arrisku-faktore nagusiak. Espezializazio-eremuak. Ingurune-faktoreak (argiztapena, zarata eta bibrazioak, barne-giroaren eta giro termikoaren kalitatea).

41. gaia: Psikosoziologia: arrisku psikosozialen faktorearen definizioa. Arrisku psikosozialen faktore nagusiak.

42. gaia: Txandaka lan egitea eta gauez lan egitea. Antolakuntzako alderdiak. Eragin mediko-patologikoak.

43. gaia: Estresa: fisiologia. Estresaren prebentzioa. Banakakoengan esku-hartzea.

44. gaia: Haurdun dagoen, haurra izan berri duen edo bularra ematen ari den langilearen laneko arriskuen prebentzioa.

IV. ZATIA

45. gaia: Osasunaren zaintza laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian.

46. gaia: Laneko erizaintza. Atarikoak. Espezialitatearen definizioa eta jardura-eremua. Helburu orokorrak eta eskumenak.

47. gaia: Laneko zaintza epidemiologikoa: Atarikoak. Laneko zaintza epidemiologikoaren kontzeptua. Laneko zaintza epidemiologikoaren helburuak. Zaintza epidemiologiko motak. Zaintza epidemiologikoko sistemen ezaugarriak.

48. gaia: Estatuko Osasun Sistemako prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan aritzea. Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak.

49. gaia: Txertaketa lan-arloan: Ohar orokorrak. Txertaketak. Prebentzio Zerbitzua txertaketan.

50. gaia: Txertaketen eskuliburua, Eusko Jaurlaritza: 2. kapitulu. Erizaintzako prozedurak: Hotz-katearen kontrola eta txertoen biltegiatzea. 4. kapitulu. Txertoak: Tetanoa. Difteria. A eta B hepatitis. Gripe.

51. gaia: Osasunaren sustapena lanean: Definizioa. Premisak. Zioak. Helburuak eta onurak.

52. gaia: Osasunaren zaintzarako protokoloa, zaratari dagokionez. Aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Osasun-protokolo espezifikoak. Miaketa audiometrikoari buruzko alderdi praktikoak. Osasunaren zaintza kolektiboari buruzko alderdi praktikoak.



53. gaia: Berariazko osasun-zainketarako protokoloa. Kargak eskuz manipulatzeari: Aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Protokolo mediko espezifikoa.

54. gaia: Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, datuak bistaratzeko pantailak: Aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Lanpostuaren kontzepzio ergonomikoa. Protokolo mediko espezifikoa.

55. gaia: Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, erradiazio ionizatzailerak: Aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Arriskuaren ebaluazioa. Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa.

56. gaia: Osasun-zainketarako protokolo espezifikoa, agente biologikoak: Aplikaziorako irizpideak. Arazoaren definizioa. Osasun-protokoloa.

57. gaia: Nola jardun behar den arrisku biologikoa duen istripu batean.

58. gaia: Lan-eremuko dermatosi nagusiak.

59. gaia: Mendekotasunen prebentzioa enpresan: Mendekotasunen arloko kontzeptu nagusiak. Mendekotasunen prebentziorako plana EAEko enpresetan.

60. gaia: Nahasmendu muskulu-eskeletikoak: kontzeptua. Nahasmendurik ohikoenak. Arrisku faktore nagusiak. Osasunaren Zaintza

61. gaia: Lehen laguntzak. Bizi-euskarria, oinarritzak eta aurreratua.

62. gaia: Gaixotasun kardiobaskularrak. Arrisku faktore nagusiak.

63. gaia: Aparatuen erabilera eta proba osagarriak: ikusmenaren kontrola. Audiometriak. Espiometriak. EKG.

**OINARRI BEREZIAK****ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, TEKNIKARIEN AZPIESKALA, ESPEZIALITATEA: PREBENTZIO, SUHILTZAILE ETA SALBAMENDU ZERBITZUKO IKUSKATZAILEORDETZA****1. Deialdian eskainitako plazak**

Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuko ikuskatzaileordeen hiru (3) plaza (A-2 taldekoak) betetzeko deialdia egiten da. Lehiaketa-oposizio bidez beteko dira plazak, eta III. hizkuntza-eskakizuna dute. Honela banatuko da deialdia:

Barne-sustapeneko txanda: Plaza bi (2); batek derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna du, eta besteak, berriz, derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna.

Txanda irekia: Plaza bat (1), derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizunarekin.

2. Titulazioa

Kontuan harturik zer ezartzen duten Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua zein hirugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikulua, hauxe da eskatzen den titulazioa: gradua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa edo unibertsitateko diplomaduna (edo lizentziaturako hiru kurtso oso gaindituta izatea), Lanbide Heziketako hirugarren gradua edo baliokidea.

Kontuan harturik zer ezartzen duen 2015eko urriaren 30eko 5/2015 LEdek bere 3. xedapen iragankorraren 3. paragrafoan, barne-sustapeneko txandaren bidez parte hartzen dutenek, eskatutako titulazioa izateaz gain, karrerako funtzionario izan beharko dute, C1-taldeko plaza batean.

3. Jatorrizko plaza

Aintzat harturik deialdia arautzen duten oinarri orokorretako bigarren artikuluen 2.a) atala eta 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testuategina onartzen duena, barne sustapeneko plazarako jatorrizko plaza Suhiltzaile Zerbitzuko ofizialordea izango da.

4. Gidabaimena

Izangaiek B gidabaimena izan beharko dute eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzean.

5. Berariazko betekizunak

Urriaren 30eko 5/2015 ELDren 56.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, berariazko betekizuna izango da IT txartel hauek edukitzea: Word eta Excel, Oinarrizkoak (baliodunak: 97/2000/XP/2003/2007/2010). Word aurreratuko eta Excel aurreratuko IT txartelak oinarrizko Word eta oinarrizko Excel-enak baliozkotuko dituzte, hurrenez hurren.

Horretarako, sei (6) hilabeteko epea ematen da, deialdi hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dena.

Izangaiek ez dute agirik aurkeztu beharko, Foru Aldundiak zuzenean egiaztatuko baitu Tecnaliarekin ea izangaiek IT txartelak dauzkaten eta noiz lortu dituzten. Aipatu behar da 2020ko apirilaren 17an EHAA-n argitaratu zela lehengo «Tecnalia Fundazioa» xurgatzen duen «Tecnalia Research & Innovation fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zela.

Txartelok epe horretan eskuratzen ez dituen izangaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta, ondorioz, ez da sartuko prozesuaren ondoren osatuko den lan-poltsan.

6. Hautaketa-prozesua**6.1. Oposizio fasea**

Hiru (3) ariketak osatzen dute oposizio-fasea; hirurak dira nahitaezkoak eta bazter-tzaileak.

6.1.1. Lehenengo ariketa

Parte bi izango ditu:

- a) Lehenengoan, esku-hartzei buruzko kasu praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, idatziz. Kasu horiek lanpostuaren berezko eginkizunei egokituta eta lotuta egongo dira, eta eranskinen gai-zerrendako II. eta III. zatietan izango dute zerikusia. Ariketa hasi baino lehentxoago erabakiko du epaimahaiak zein izango diren, eta bi (2) ordutan ebatzi beharko dira.

Ariketa egitean honako hauek baloratuko dira: informazioa jaso eta ebaluatze ahalmena, erabakien koherentzia, agindu eta txostenetako argitasuna eta komunikazio-gune nagusiarekiko eta gainerako agintariekiko erlazioa.

- b) Bigarren ariketan, 100 galderako test bat egin beharko da (gehi erreserbako 10 galdera), bi (2) ordutan. Zenbait erantzun eskainiko dira galderetan, baina haie-tariko bat bakarrik izango da zuzena. Eranskinen I. eta II. zatietan jasotako gaiei buruzko galderak izango dira. Erantzun zuzen bakoitzeko 0,1 puntu emango da; baina erantzun oker bakoitzeko 0,033 puntu kenduko dira.


100 galderetatik 40 gai-zerrendako I. zatiko edukiari buruzkoak izango dira; gainerako 60ak, berriz, II. zatiko gaiei buruzkoak.

Barne sustapeneko txandatik datozen hautagaiek lehendik eskatu zitzaizkien ezagutzak berriro egiaztatu ez ditzaten, haiek ez dituzte gaien zerrendako I. zatia buruzko ezagutzak egiaztatu beharko, eta, ondorioz, denbora gutxiago izango dute, proportzionalki, gainerako edukien inguruko galderei erantzuteko.

6.1.2. Bigarren ariketa

Gaitasun fisikoa egiaztatze ariketa izango da, zeinean gaitasun fisikoko ariketa hauek egin beharko diren:

- a) 1. ariketa: Bizkortasun-zirkuitua:
- *Helburua*: Neurtuko da izangaia nola moldatzen den azkar eta erraz mugitze-ko; horretarako, deialdiko plazari dagozkion zenbait eginkizun egingo dira.
 - *Probaren azalpena*: Bi bider egin beharko da joan-etorriko zirkuitu bat, ahalik eta denbora gutxien eta bizkarrean zama bat hartuta.
 - *Zirkuituaren ezaugarriak*: irteera-marratik metro batera pika edo makila bertikal bat jarriko da lurraren gainean (160-170 cm-ko altuera); irteera-marratik 3 metrora 3 suediar eserleku edo banku jarriko dira, gutxi gorabehera 6 m-ko tartea hartuko dutenak; azken aulkitik 2 m-ra listoi bat jarriko da, 1 m-ko altueran; listoi horretatik 3 m-ra 3 pika jarriko dira (160-170 cm-ko altuerakoak), ilaran eta elkarren artean 1,5 m-ko tartea gordeta; azken pika edo makilatik horma-barraraino 3 m-ko tartea dago; horma-barraren gainetik, paretaren kontra, eta 3 m-ko altueran, kanpai bat jarriko da. Bigarren itzulian irteeratik 1 m-ra dagoen pikaren atzetik joan beharko da.





Izangaia irteera-mugatik 0,5 m-ra jarriko da, bizkarraren gainean 10 kg $\pm$ 1 kg-ko zama duela. Berak nahi duenean aterako da hautagaia, aztertzaileari esan eta gero. Zorua gainera lehenengo pika ekidinez igaroko da eta suediar eserlekuek betetzen duten tartean gainetik egin beharko du, zorua ukitu gabe. Listoiaren parera iristean, azpitik pasatuko beharko du, listoa lurrera bota barik. Piken artean sigi-sagan joango da, gero horma-barraren gainetik igoko da eta kanpaia joko du. Jaitsi eta zirkuitua bera egin beharko du, oraingoan kontrako noranzkoan. Bigarren zirkuitua hasteko, irteera-mugatik metro batera dagoen pikaren atzetik egin beharko du eta joan-etorriko zirkuitua bera egin beharko du berriro. Helmuga-marra zeharkatutakoan amaituko da ibilbidea.

- *Izangaientzako jarraibideak*: irteera-mugatik 0,5 metrora jarriko da, azaldutako eran, eta joan-etorriko zirkuitua 2 aldiz egin beharko du. Ariketa hau baliorik gabe uzteko arrazoiak: hautagaiak piketakoren bat edo listoa botatzen badu edo zorua ukitzen badu suediar eserlekuek okupatutako tartean, edo ibilbideetako batean.
- *Neurketa*: ahalegin bi egin daitezke, baina ez elkarren segidan. Adierazitako jarraibideen arabera joan-etorriko zirkuitua biak egiten emandako denbora jasoko da paperean, Honela neurtuko da denbora: minutuak-segundoak-ehunenak (00:00:00). Eskuz, zelula fotoelektrikoa erabiliz edo era bietara egingo da neurketa: era horiek guztiak izango dira baliodunak.

Gizonak	
Adina	Denbora
25 urte baino gutxiago	< 39,00"
25 eta 35 urte bitartekoa	< 40,00"
36 eta 45 urte bitartekoa	< 41,00"
46 eta 55 urte bitartekoa	< 42,00"
56 urte eta hortik gora	< 43,00"

Emakumeak	
Adina	Denbora
25 urte baino gutxiago	< 43,00"
25 eta 35 urte bitartekoa	< 44,00"
36 eta 45 urte bitartekoa	< 45,00"
46 eta 55 urte bitartekoa	< 46,00"
56 urte eta hortik gora	< 47,00"

- b) 2. ariketa: 2.000 metroko lasterketa:
- *Helburua*: Ebaluatzea ea zer erresistentzia-maila duen izangaiak esfortzu gutxi-asko luzeak eta intentsioak egiteko.
 - *Probaren azalpena*: Atletismoko pista batean, hautagaiak 2.000 metro egin beharko ditu, arineketan, oinez edo era bietara, ahalik eta denborarik laburrenean.
 - *Izangaientzako argibideak*: «Zuen tokietara» esaten denean, izangaia irteera-marraren atzean jarriko da, eta tiroa entzundakoan lasterketa egiteari ekin- go dio. Ezin izango da iltzedun zapatilarik erabili; beharrezkoa izango da prakak eta mahuka laburreko kamiseta edo kamiseta tiranteduna erabiltzea. Behin karrera hasitakoan, ezin izango da pistatik atera, bestela deskalifikatuta geratuko baita.
 - *Neurketa*: Saialdi bakarra egiteko aukera emango zaio hautagaiari. Aipatutako jarraibideen arabera, 2.000 m-ko tarte arineketan egiten erabilitako denbora jasoko da. Honela neurtuko da denbora: minutuak-segundoak-ehunenak (00:00:00). Eskuz, helmugako bideoaren bidez edo biak erabiliz egingo da neurketa: era horiek guztiak izango dira baliodunak.



Gizonak		Emakumeak	
Adina	Denbora	Adina	Denbora
25 urte baino gutxiago	< 08'00"	25 urte baino gutxiago	< 09'00"
25 eta 35 urte bitartekoa	< 09'00"	25 eta 35 urte bitartekoa	< 10'00"
36 eta 45 urte bitartekoa	< 10'00"	36 eta 45 urte bitartekoa	< 11'00"
46 eta 55 urte bitartekoa	< 11'00"	46 eta 55 urte bitartekoa	< 12'00"
56 urte eta hortik gora	< 12'00"	56 urte eta hortik gora	< 13'00"

6.1.3. Hirugarren ariketa

Euskarazko III. (3.) hizkuntza-eskakizunaren pareko maila badela frogatu eta, hala badagokio, egiaztatzean datza.

Derrigorrezko III. hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa eta baztertzailea, ezarrita duten lanpostuei lotutako plazetara aurkezten diren hautagaiak maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute, hala badagokio.

Borondatezkoa eta ez-baztertzailea izango da derrigorrezkoa ez den III. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei loturiko plazetarako hautagaien zatia. Maila horretako euskararen ezagutza frogatu eta egiaztatu beharko dute.

Bizkaiko Foru Aldundian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro halakorik egiaztatu behar parte hartzen ari diren hautaketa-prozesuan, ez eta Euskararen Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan eskakizuna egiaztaturik ageri direnek ere. Azken kasu horretan, parte-hartzaileak berriazko baimena emango dio Bizkaiko Foru Aldundiari, erregistro horretan egiaztatzen ari den dezan.

Hala eta guztiz ere, euskararen egiaztapena edo titulua aurkeztu beharko dute baldin eta erregistro horretan ez dagoen arren 2010eko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat baliozkotuta badago; dekretu horren bitartez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen dira.

Izangaiek apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi badituzte hizkuntza-eskakizunak, ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko da.

6.2. Lehiaketa-fasea

Lehiaketan, izangaiek aurkeztu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta balioztatuko dira. Horretarako, izangai bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak emango zaizkio.

7. Trebakuntzako ikastaroa/Praktikaldia

Nahitaezkoa eta baztertzailea izango da, eta banaka ebaluatuko dira hautagaiak. Prestakuntza ikastaro bat eta lanpostuko praktikak egingo dira Bizkaiko Foru Aldundi-ko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuan, hiru (3) hilabetez, gehienez ere. Garaiz iragarriko da zer eduki izango duten eta noiz egingo diren praktikak. Praktiken araubide juridikoa eta garapena beren-beregi emango den Foru Agindu baten bidez zehaztuko dira.

Funtzionario eta praktiketako funtzionario izendatu diren pertsonen ordainsari-arau-bidea Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da. Praktika-aldia lanpostuan egiten den bitartean, eta karrerako funtzionario izendatu arte, lanpostu horretako ordainsaria jasoko da.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emango du prestakuntza teorikoa. Akademia horrek zehaztuko ditu, halaber, edukiak, ebaluatzeko eta gaitatzeko moduak, bai eta edukien iraupena ere, ikasketa-planaren arabera.



Aldi horretan, hauek baloratuko dira:

- a) *Zer gaitasun erakutsi duen hautagaiak honako alderdi hauetan:*
 - Lan-gaitasuna eta lanbide-etekina.
 - Erantzukizun-sena eta efizientzia.
 - Ikasteko interesa, jarrera edo ekimena.
- b) *Zer ahalmen erakutsi duen hautagaiak honako alderdi hauetan:*
 - Lan-taldean integratzeko.
 - Barne edo kanpoko harremanen egokitzapenerako.

8. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

8.1. Oposizio fasea

Lehen ariketa:

Lehen ariketa zero (0) puntutik berrogeira (40) bitartean kalifikatuko da, honela banatuz puntuok: Lehen zatiak zero (0) eta hogeita hamar (30) artean balioko du, eta bazterturik geratuko dira hamabost (15) puntu lortzen ez duten izangaiak; bigarren zatiak, berriz, zero (0) eta hamar (10) artean balioko du, eta bazterturik geratuko dira bost (5) puntu lortzen ez dutenak, hargatik eragotzi gabe hurrengo paragrafoan xedatzen dena:

Edonola ere, puntuaziorik handiena lortzen duten 9 pertsonak hurrengo ariketara igaroko dira (baldin eta lehen zatian 9 puntu baino gehiago lortzen badute eta bigarrenean 3 baino gehiago); horretarako, parte-hartzeko txanda guztiak hartuko dira kontuan. Noten mozketak-puntuak berdinketa gertatuz gero, mozketak-nota bera duten hautagai guztiek gaindituko dute ariketa hau.

Bigarren ariketari «gai» edo «ez gai» kalifikazioa jarriko zaio, eta «gai» kalifikazioa lortzen ez dutenak kanpoan geldituko dira automatikoki.

Hirugarren ariketan, «gai» edo «ez gai» kalifikazioa jarriko zaie derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenei.

Gainerako kasuetan, honako banaketa honen arabera kalifikazioa emango da, egiaztatutako maila kontuan hartuta:

- I. hizkuntza-eskakizuna: 2,5 puntu.
- II. hizkuntza-eskakizuna: 5 puntu.
- III. hizkuntza-eskakizuna: 7,5 puntu.

8.2. Praktikaldia

Praktikaldiari «gai» edo «ez gai» kalifikazioa emango zaio, eta hura ez gainditzeak berez eta besterik gabe prozeduratik kanpo gelditzea ekarriko die «gai» kalifikazioa lortzen ez duten hautagaiei, baita karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubide guztiak galtzea ere.

Hautagai bakoitzaren kalifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren iragarki-oholean argitaratuko da, lortutako gainerako kalifikazioekin batera. Hautaketa-proba guztietan lortu dituzten puntuazioen batura izango da hautagaien azken kalifikazioa.

9. Lan-poltsa

Lan-poltsan sartuko dira ariketa guztiak eta praktikaldia eta/edo prestakuntza gainditzeaz gainera beren-beregi egingo den mediku-azterketaren arabera lanpostua betetzeko gai direnak.

Beharrezkoa bada, bigarren mailako lan-poltsa bat osatuko da.

**IKUSKATZAILEORDEAK****I. ERANSKINA****PROZESUTIK KANPO GERATZEKO ARRAZOI MEDIKOAK****BAZTERKETA OROKORRA**

Hautagaiak ezin du inolako gaixotasun organikorik izan, ez istripu-arrastorik, ez eta lanpostuaren lanbide-jarduna eragozten duen edozein urritasun fisiko edo psikikorik ere.

Halaber, exogenoen ziozko pozoidura kronikoaren egoera adierazten duten sintoma edo aztarna kliniko-biologikoak dituzten hautagaiak berez geratuko dira baztertuta.

Aldi baterako arrazoi baztertzailatzat joko dira honako hauek: azterketa egiteko unean ageri diren baina tratamendu mediku-kirurgikoaren bidez zuzendu daitezkeen gaixotasun eta lesio aktiboak, bazterketa-taulan sartuta dauden arren. Halakoetan, epai-mahaiak beste epe bat jarri ahal izango du, ikasturtea hasi aurretik, hautagaiaren osasun-egoera egiaztatzeko. egiaztapen hori egin ondoren, aldi baterako arrazoi baztertzailak desagertu diren ziurtatuko du.

Klausula orokorrean xedatutakoa gorabehera, honako hauek ere izango dira ikuskatzaileordeen eginkizunetatik baztertzeko berariazko arrazoiak:

1. Gaixotasun sistemikoak

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoiak izango da:

- Kolageno-eritasuna eta konektibopatiak.
- Fibromialgia.
- Artritis erreumatoidea.
- Espondilitis ankilopoietikoa.
- Baliaezintasuna dakarten neoplasiak.

2. Oftalmologia

Ikusmen-gaitasuneko proba medikoa egiten den egunean begi bakoitzaren ikusmena ez da izan behar 8/10 baino txikiagoa Wecker eskalan; begi biak erabileran begien zorrozatasuna 10/10ekoa izan behar da. Aldez aurretiko errefrakzio-kirurgia eta neurri zuzentzailerik erabiltzea baimenduta daude.

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoiak izango da:

- Ikusmen-eremuaren murrizketak.
- Hemeralopia.
- Diplopia.
- Lagoftalmiak edo betazal-ptosiak.
- Afakiak, sasiafakiak.
- Konjuntibitisa, keratitisa edo iritis kronikoak.
- Diskromatopsiak.
- Begi-ninien erreflexuen alterazioak.
- Korneako distrofia progresiboa edo baimendutakoaren azpiko begi-zorrozatasunaren murrizketa
- Dakriozistiti kronikoa
- Erretinopatia, pigmentu-erretinitisa.
- Begien motrizitatearen alterazioak.
- Glaukoma.
- Itsualdira moldatu ezina.

**3. Otorrinolaringologia**

— Ez da onartuko audiofonorik, ezta kofosirik ere.

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Erdiko edo barruko belarriaren gaixotasun kronikoak.
- Tinpanoaren zulaketa bizia.
- Fonazioaren eta sudur arnasketaren zailtasun nabarmenak eta kronikoak.
- Bertigoak eta orekaren edozein nahasmendu.

4. Lokomozio-aparatua

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Anatomia-galera edo eginkizunak betetzeko goiko zein beheko gorputz-adarren edozein muga.
- Bizkarrezurraren errotazio edo flexio arrunta eragozten duen edozein patologia.
- Oinaren funtzionamendu arrunta zaildu edo laneko botak janzteia eragozten duen oinaren patologia.
- Lanbidearen berezko norbanako babeseko ekipoak eta bitartekoak erabiltzea eragozten edo zailtzen duten burezurreko eta aurpegiko akatsak.
- Mugikortasuna mugatzen duen hezur eta muskuluetako beste edozein gaixotasun, ikuskatzaileordeen zereginak zailtzen dituena.
- Espondilolisi edo espondilolistesi ezegonkorak.
- Ez da onartuko goiko edo beheko gorputz-adarretako artikulazio nagusien mugikortasun-aldaketarik edo/eta deformaziorik, artikulazioen eginkizunen murrizketa eragiten badu.

5. Arnas-aparatua

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- OCFA, enfisema, bronkitis kronikoa.
- Txarto kontrolatutako asma.
- Atelektasiak.
- Pneumotorax berreritzailea.
- Birikietako tuberkulosi aktiboa.

6. Digestio-aparatua

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Hepatopatia kronikoak. Gibleko zirrosia.
- Pankreatopia kronikoak.
- Hesteetako hanturazko gaixotasun kronikoak.
- Sabeleko herniak.

7. Aparatu kardiobaskularra

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Organismoan eragina duen edo sendagai-tratamendua behar duen arteria-hipertentsioa.
- Bihotz-gutxiegitasuna.
- Kardiopatia iskemikoa, aurretiko bihotzekoa edo bypass koronarioko bihotz-ebakuntza.
- Arritmia garrantzitsuak, flutterra eta fibrilazio aurikularra.
- Wolf Parkinson White-ren aldeztutako aurretiko eszitazio-sindromeak.
- 2 edo 3. graduko blokeo aurikular-bentrikularra.



- Estrasistole patologikoak.
- Balbulopatiak. Ez da onartuko balbula-protetikak.
- Mikrokardiopatiak.
- Arteria, bena eta linfa-zirkulazioaren gutxiegitasuna.
- Zain eta arterietako malformazioak, zain eta arterietako shuntak eta bihotz edo baso handietako aneurismak.
- Ikuskatzaileordeen berezko zereginak eta praktika fisikoak zaildu, oztopatu edo horietan eragin negatiboa duten bestelako bihotz-hodietako prozesuak.

8. Nerbio-sistema zentrala

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Epilepsiak.
- Mielina galtzea eragiten duten gaixotasunak eta esklerosi anizkoitza.
- Entzefalopatia kronikoak edo entzefalopatia larrien aztarnak.
- Muineko afekzio kronikoak edo afekzio larrien aztarnak.
- Dardara edo espasmo kronikoak. Parkinson gaixotasuna eta sindrome estrapiramidalak.
- Sistema zentralako jatorriko bertigoak. Garun eta zerebeloko ataxiak.
- Jaiotzetikoa nahiz geroago jasandako burezurreko lesioengatiko garrantzizko aztarnak.
- Hiposmia kronikoaren edozein maila.
- Muskulu distrofiak.
- Miopatiak.
- Garezurreko nerbioen paralisiak- aurpegi-perlesiari buruzko aipamen esplizitua, norberaren babeserako ekipak erabiltzeko arazoak ekarriko lituzke eta.

9. Buruko edo adimen-egoera

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Psikosi eskizofrenikoak.
- Nahaste obsesibo-kompulsibo larriak. Fobiak.
- Adimen-atzerapena: mota guztiak.
- Toxikomaniak, alkoholismoa barne dela.
- Depresio-nahasmenduak. Nahasmendu bipolarra.
- Nortasun arazo guztiak, egokitu gabeko jokaerak sortarazten dituztenean, barne-barnean sustraituak, eta lanbidearen berezko arriskuekin bateraezinak direnak.

10. Gernu-aparatua

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Gernu eta giltzurruneko hodien sortzetiko malformazioak, giltzurrunetako tenia-kistea, meduloespongiosia eta giltzurrun bikoitza izan ezik.
- Nefrektomia.
- Giltzurruneko gutxiegitasuna eta nefroesklerosia, edozein mailatakoa.
- Giltzurrunetako tubulopatiak. Hidronefrosia.
- Giltzurrunetako gutxiegitasuna sorrazten duten nefropatiak.

11. Dermatologia

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Gaixotasun infekzioso kronikoak
- Baba (penfigoak), ekzema edo psoriasis eragiten duen edozein gaixotasun.
- Eginkizunak betetzeko muga larria eragiten duten orbain edo markak.

**12. Sistema hematopoietikoa**

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Hemopatia kroniko larriak.
- Anemia hemolitiko eta sideroblastiko kronikoak.
- Talasemiak, anemia larria eragiten badute.
- Leukosia eta sistema erretikulohistiozitarioaren gaixotasunak.
- Linfoproliferazio-sindrome kronikoak.
- Hemostasia aldaketak. Hemofiliak.
- Gammapatia monoklonalak.
- Gaueko hemoglobinuria paroxistikoa.
- Immuneskaziak.
- Antikoagulatzaile, interferon edo kortikoideekin egindako tratamendu kronikoak.

13. Gaixotasun endokrinikoak

Honako hauetako bat edukitzea baztertzeko arrazoia izango da:

- Diabetes mellitusa
- Diabetes zaporegabea.
- Cushing-en gaixotasuna.
- Addison-en gaixotasuna.
- Tiroide, giltzurrungaineko, hipofisi eta paratiroide gaixotasun eta disfuntzioak.
- Gonadaren disfuntzioak eta gaixotasunak.
- Porfiriak.
- Eginkizunen betekizun zuzena zaildu eragozten duen loditasuna.

Mediku fakultatiboaren ustez Prebentzio eta Suhiltzaile Zerbitzuko ikuskatzaileordeen eginkizunak betetzea eragotzi edo zailtzen duen beste edozein prozesu kliniko patologiko.

**II. ERANSKINA****DEIALDIKO BAZTERTZE-TAULARI BURUZKO FROGA MEDIKOAK EGITEKO BAIMENA**

Abizenak eta izena:

NAN:

Adina:

Honen bidez, baimena ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko Lan Osasunerako Atalari —bera arduratuko baita Suhiltzaile Zerbitzuan ikuskatzaileorde sartzeko azterketa mediko espezifiko egi-teaz— ikuskatzaileorde lanpostuaren osasun-zaintzaren arloko protokolo bereziaren pa-ramentroyen arabera beharrezko diren miaketa medikoak, odol-ateratze eta -analisiak eta gernu-azterketak egin diezazkizaten; hain zuzen, honako hauek:

Odol-analisisa

- Hemograma osoa, leukozito-formula, plaketak, GJA.
- Biokimika: glukosa, azido urikoa, urea, kreatinina, iragazte glomerularra, kolesterol osoa, HDL- kolesterol, LDL-kolesterol, VLDL-kolesterol, triglizeridoak, transa-minasak: GOT (AST), GPT (ALT), gamma glutamil transpeptidasa (CGT), fosfata-sa alkalinoa, ioiak eta burdinaren metabolismo osoa.
- Tiroide-hormonak: TSH eta T4.
- Serologia: hepatitisaren balorazioa.

Gernu-analisisa

- Dentsitatea, pH, ezohikoak.
- Drogen detekzioa: opiazekoak, kannabisa, kokainaren eta anfetaminen metaboli-toak, barbiturikoak eta benzodiazepinak.

Halaber adierazten dut botika hauek hartzen ditudala: (adieraz ezazu botikaren izen komertziala edo osagaiak).

Eta hala jasota gera dadin, baimen hau sinatzen dut,(e)n, 20...(e)ko(a)(r) en ...(e)(a)n.



III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

ESPEZIALITATEA: IKUSKATZAILEORDEA

1. Administrazio Publikoan ikuskatzaileorde plaza batean (A-2 titulazio-azpitaldean) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean, salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu bidezkoetan: 0,1 puntu hileko edo zatiki bakoitze-ko. Gehienez: 6 puntu.

Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriz-
tuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

2. Administrazio Publikoan sarjentu plaza batean (A-2 titulazio-az-
pitaldea) egindako zerbitzuak, edozein harreman juridikoren menpean,
salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen errentamendu-kontratu
bidezkoak: 0,05 puntu hileko edo zatiki bakoitzeko. Gehienez: 3 puntu.

Edozein kasutan, zerbitzua modu partzialean edo lanaldi murriz-
tuan eman den aldi guztiak lanaldi osotzat hartuko dira.

Ezin da 6 puntu baino gehiago atera baremo honetako 1. eta 2.
ataletan lorturiko puntuak batuta:

6 puntu.

3. Administrazio publikoetan, Administrazio Publikoko eskoletan
(IVAP, INAP, IEAP edo administrazioko beste eskola batzuen), norta-
sun juridiko publikoa duten zentroetan eta unibertsitate publiko zein
pribatuetan gaiekin zuzen-zuzenean zerikusia duten prestakuntzako
ikastaroetan eta/edo titulazio akademikoetan emandako edota jaso-
tako ordu-kopurua, baldin eta ikastarook baldintza legez ez badute
plazan sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza edo
titulazioa izatea; 0,015 puntu hartutako ordu bakoitzeko eta 0,020
puntu emandako ordu bakoitzeko; Gehienez:

3,5 puntu.

4. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo bi jakitea, baina hiz-
kuntzaren maila ezberdinak metatzeko aukerarik gabe eta guztira
gehienez lor daitekeelarik,

0,5 puntu.

Banaketa honen arabera:

- a) Europako erreferentzia-markoko B-1 maila (besteak beste):
Hizkuntza Eskola Ofizialeko 3. maila edo oinarritzko zikloa edo
maila ertaina B1.2. edo (ingeleza: Trinity College Grade 9) edo
(alemana: ZAP-Zertifikat Deutsch als Fremdsprache-Goethe
Institut) edo (frantsesa: DELF 1er degré): 0,150 puntu.
- b) Europako erreferentzia-markoko B-2 maila (besteak beste):
Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo B2 maila aurreratua,
edo (alemana: Cambridgeko First Certificate of English agiria
edo (alemana: ZMP-Zentrale Mittelstufenprüfung Goethe Insti-
tutuaren agiria edo (frantsesa: DELF 2ème degré. DL-Diplôme
de Langue-Alliance Française agiria): 0,300 puntu.
- c) Europako erreferentzia-markoko C-1 maila (besteak beste):
Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila edo lizentziatura (goi
mailako unibertsitate-titulua) EBko edozein hizkuntzaren fi-
lologian edo (ingeleza: Cambridgeko Certificate in Advanced
English agiria edo Cambridgeko Unibertsitateko Certificate
of Proficiency in English agiria edo Trinity Collegeko Passed
Grade Twelve agiria edo Oxfordeko Unibertsitateko Higher
Level agiria; edo alemana: ZOP-Zentrale Oberstufenprüfung
edo KDS-Kleines Deutsches Sprachdiplom edo GDS-Gros-
ses Deutsches Sprachdiplom agiria, edo frantsesa: 0,500
puntu.

Guztira: 10 puntu.

**IV. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****I. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.

2. gaia: Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia-estatutuak. Eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzeko sistema.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (jarraipena). Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurilaritza. Lehendakaria. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa.

5. gaia: 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duena. Arau orokorrak: lurralde historikoetako erakundeen eskumenak, printzipio nagusiak, zergak harmonizatzea, lankidetzat printzipioa eta Estatuarenak bakarrik diren eskumenak. Finantza-harremanak: printzipio nagusiak eta kupoa (kontzeptua).

6. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakunde eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Lurralde historikoen eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.

7. gaia: 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidegoko instituzio erakunde eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzkoa (jarraipena). Autonomia finantzario eta aurrekontu-autonomia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia. Foru Ogasunak. Ogasun Nagusiaren eta Foru Ogasunen arteko baliabideen banaketari buruzko ideia orokorra. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

8. gaia: Espainiako toki-araubidea. Printzipio konstituzionalak. Araubide juridikoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea: Xedapen orokorrak.

9. gaia: Udalerriaren antolaketa. Probintziaren antolaketa eta eskumenak. Foru-aldiak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean.

10. gaia: Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintza motak. Administrazio-egintzaren osagaiak.

11. gaia: Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta haien baldintzapena. Beteazgarritasuna eta etetea. Beteazpena. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Egin-tzak administrazio-bidetik berrikustea. Ofizioz berrikustea.

12. gaia: Administrazio-prozedura erkidea: Jarduteko arau orokorrak. Epe-mugak eta epeak. Faseak: Hasiera, antolamendua, instrukzioa.

13. gaia: Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Motak. Araubide juridikoa.

14. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua, I. kapitulua, 1. atala, Xedea eta aplikazio-eremua: 1-3 artikulua, bi horiek barne, eta 2. atala, Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak: 4, 6 eta 11. artikulua. Atariko titulua, II. kapitulua, 1. atala, Kontratu motak zedarritzea: 12-18 artikulua, bi horiek barne.

15. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Ordainsari-araubidea.

16. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarrizkoa: Atariko titulua. I. titulua: Herriararen eta Herri Agintaritzaren eskubide eta egin-beharrak hizkuntzaren alorrean.

17. gaia: 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onesten duena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak (xedea eta aplikazio-eremua eta eskumenak). I. titulua: Bizkaiko



Foru Ogasunaren araubidea (printzipio orokorrak, eskubide ekonomikoak eta betebeharrak ekonomikoak).

18. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa. Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bizkaiko Foru Aldundia. Izaera, osaera eta kargua uztea. Eskumenak. Ahaldua Nagusia.

19. gaia: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa (jarraipena). Batzar Nagusien eta Foru Aldundiaren arteko harremanak. Xedapen orokorrak. Foru Aldundiaren erantzukizuna. Foru Arauen proiektuak egiteko prozedura. Foru-administrazioa. Arau orokorrak. Izaera orokorreko xedapenak eta administrazio-ebazpenak.

20. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: Zioen azalpena. Atariko titulua. 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: hitzaurrea eta atariko titulua eta I. titulua: Eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

21. gaia: 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako: II. titulua: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan genero-ikusegia txertatzeko neurriak.

22. gaia: 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Publikotasun aktiboa: Aplikazio-eremua (2. artikulua), kontzeptua eta dimentsioak (5. artikulua), ez-betetzea (13. artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: Kontzeptua (18. artikulua), mugak (21. artikulua) eta ez onartzeko arrazoiak (22. artikulua). Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea (27., 28. eta 29. artikulua).

II. ZATIA

23. gaia: 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena (2017ko 84. EHAA, maiatzaren 5koa).

24. gaia: Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI). Honen bidez onartua: 153/1997 Dekretua, 1997ko ekainaren 24koa, «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituen (EHAA, 138. zenbakia, 1997ko otsailaren 21). 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planeari (EHAA, 14. zenbakia, 2015eko urtarrilaren 22).

25. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia. Honen bidez onartua: 3/2015 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (EHAA, 13. zenbakia, 2015eko urtarrilaren 21).

26. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia. Honen bidez onartu zen: 80/2016 Ebazpena, abenduaren 27koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (EHAA, 7. zenbakia, asteazkena, 2017ko urtarrilaren 11koa).

27. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia. Honen bidez onartu zen: 10/2001 Ebazpena, abuztuaren 1koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duena (EHAA, 189. zenbakia, 2001eko irailaren 28).

28. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 130/2010 Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana arautzen duena (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 229. zenbakia).



29. gaia: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko (EHAA, 238. zenbakia, 2010eko abenduaren 14). Hutsen zuzenketa, honako dekretu honena: 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko (EHAA, 289. zenbakia, 2014ko urtarrilaren 22). 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, bigarren aldiz aldatzen duena aipaturiko dekretua. (EHAA, 38. zenbakia, 2019ko otsailaren 22).

30. gaia: Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak, honen bidez onartuak: Agindua, 2018ko azaroaren 20koa, Segurtasuneko sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duen agindua laugarren aldiz aldatzekoa. (EHAA, 233. zenbakia, astearte, 2018.eko abenduak 4).

31. gaia: 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta haren aldaketak: I-VII kapituluak, biak barne. Kode elektronikoak. Laneko arriskuen prebentzioa, 2020ko urtarrilaren 7an eguneratutako edizioa.

32. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (Infobi). Honen bidez onartu zen: Gobernu Kontseiluaren erabakia, Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (Infobi) onestekoa. (2002ko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 9. zenbakia).

33. gaia: Eraikigintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak: SI Oinarrizko Dokumentua: Xedea. Aplikazio-eremua. Ezartzeko irizpide orokorrak. DB-SI betetzeko baldintza bereziak. Eraikuntzako produktuen eta osagaiek jardute-baldintzak sutearen aurrean. Saiakuntza laborategiak. SI-A eranskina, terminologia.

34. gaia: Eraikigintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak: SUA Oinarrizko Dokumentua: Xedea. Aplikazio-eremua. Ezartzeko irizpide orokorrak. DB-SUA betetzeko baldintza bereziak. SUA-A eranskina, terminologia.

35. gaia: 400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzkoa (2013ko 147. EHAA, abuztuaren 2koa).

36. gaia: 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa (2010eko 30. EHAA, otsailaren 15koa). 30/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baitira herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman duten borondatezko parte-hartzeari buruzko Dekretua eta Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzko Dekretua (2019ko 43. EHAA, martxoaren 1koa).

III. ZATIA

37. gaia: Eraikigintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak: SI Oinarrizko Dokumentua: SI-1 ataletik SI-6 atalera bitartekoak, biak barne.

38. gaia: Eraikigintzaren Kode Teknikoa eta haren aldaketak: SUA oinarrizko dokumentua, erabilpen segurtasunari buruzkoa: SUA-1 ataletik SUA-9 atalera bitartekoak, biak barne.

39. gaia: 2267/2004 Errege Dekretua (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 303. zenbakia, 2004ko abenduaren 17koa; eta okerren zuzenketa, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 55. zenbakia, 2005eko martxoaren 5koa), industria establezimenduetako suteen aurkako segurtasuneko araudia: I-VI kapituluak (biak barne), I. eranskina, salbu 1.2 eta 1.4 taulak, eta II. eta III. eranskinak.

40. gaia: 513/2017 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, Suteen Kontrako Babes-Instalazioen Erregelamendua onesten duena. (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 139. zenbakia, 2017ko ekainaren 12koa): I. kapitulutik VI. kapitulura (biak barne) eta I. eranskina (haren gehigarria izan ezik). Baita hutsen zuzenketa hau ere: 2017ko 230. EAO, irailaren 23koa.

41. gaia: Jarraibide Tekniko Osagarriak MIE APQ Otik 3ra. Honen bidez onartuak: 656/2017 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, produktu kimikoak biltegiatzeari eta haien



jarraibide tekniko osagarriei buruzko araudia onesten duena (jarraibideak: MIE APQ 0tik MIE APQ 10era). 2017ko 176. EAO, uztailaren 25ekoa.

42. gaia: Jarraibide Tekniko Osagarriak MIE APQ 4tik 7ra. Honen bidez onartuak: 656/2017 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, produktu kimikoak biltegitratzeari eta haien jarraibide tekniko osagarriei buruzko araudia onesten duena (jarraibideak: MIE APQ 0tik MIE APQ 10era). 2017ko 176. EAO, uztailaren 25ekoa.

43. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2012 Dekretua, errepideetako tuneletako segurtasun eta ustiapen jarraibide teknikoak onartzen dituen: V. eranskina: Suteen aurkako babes-sistemak. 2012ko 84. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 3koa.

44. gaia: Agintea eta kontrola Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuan.

45. gaia: Tuneletako suetan esku-hartzea. Eusko Jaurlaritza. ISBN: 84-457-2341-3.

46. gaia: Suteen ikerketa: sarrera. Eusko Jaurlaritza. ISBN 978-84-457-2536-8.

47. gaia: Ohm-en legea. Korrante elektrikoa eta potentzia: korrante alferoa eta korrante zuzena. Potentzia elektrikoa. Energia elektrikoa, aprobetxamendua eta galerak: energiaren kalkulua, energiaren kostua eta Joule efektua. Sinbologia elektrikoa. Eroaleen sekzioaren kalkulua. Onar daitekeen intentsitate maximoa. Zirkuitu laburraren intentsitatea. Gehienez ere onar daitekeen tentsio-erortzea.

48. gaia: Hidraulika. Fluido-mekanika buruzko oinarritzko kontzeptuak: presio absolutua eta manometrikoa, presio estatikoa eta dinamikoa, jarraitasun-ekuazioa, Bernoulliren teorema, deskarga-ekuazioa, Pascalaren printzipioa, eroanbide bateko zama-galeraren kalkulua, ponpaketa-ekipoak. Ponpa zentrifugo baten zatiak, ponpa zentrifugo baten berezko kurba, instalazio bateko funtzionamendu-gunea, ponpetako aspirazio-altuera, ponpen zebatzeta eta ahari-kolpea.

49. gaia: Adierazpen grafikoak eta topografia. Neurketa-unitateak, eskalak, adierazpen-sistemak, krokis-jasotzea, topografiako maldak eta distantziak eta topografiako planoak.

50. gaia: Eraikuntzako egiturazko osagaiak: egitura itxia, egitura horizontala, egitura bertikala eta estalkiak.

51. gaia: 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, istripu larrietan gai arrisku-tsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen (EAO 251/2015).

52. gaia: Meteorologia-fenomeno kaltegarriak iragartzeko, segimendua egiteko eta esku-hartzeko protokoloa (V-10, 2018ko ekainaren 14koa), Eusko Jaurlaritza.

53. gaia: ADR 2019: 1.2.1 kapituluak. Definizioak. (EAO, 154. zenbakia, 2019ko ekainaren 28) (Hutsen zuzenketa: 2019ko 172. EAO, uztailaren 19koa).

54. gaia: ADR 2019: 5.2 Markatzea eta etiketak jartzea, 5.3 Etiketak jartzea (Plakak-Etiketak) eta Edukiontzien panel laranja, CGEM, MEMU, Zisterna edukiontzia, Zisterna eramangarriak eta ibilgailuak eta 5.4 Dokumentazioa. (EAO, 154. zenbakia, 2019ko ekainaren 28)(Hutsen zuzenketa: 2019ko 172. EAO, uztailaren 19koa).

55. gaia: Gida operatiboa: Esku-hartzea gai arriskutsuak zisterna-ibilgailuetan garraiatzean gertatutako istripuetan: Gida eta 1. eranskina.

56. gaia: Gida operatiboa: Esku-hartzea gai arriskutsuak zisterna-ibilgailuetan garraiatzean gertatutako istripuetan: 6. eta 8. eranskinak.

57. gaia: Gida operatiboa: Esku-hartzea gai arriskutsuak zisterna-ibilgailuetan garraiatzean gertatutako istripuetan: 11. eranskina.

58. gaia: Erreskatea trafiko-istripuetan. Goi lekuetako lanak eta salbamenduak. Ur-azaleko salbamendua. (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

59. gaia: Suteen aurkako lanaren printzipioak. Barruko suteak. (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

60. gaia: Baso-suteak. Lanak eta instalazioak mahukak erabilita (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

61. gaia: Gai arriskutsuak tarteko diren istripuetako arriskua. Banaketa- eta instalazio-sareak. (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).



62. gaia: Egituren eraikuntzako eta egonkortasuneko printzipioak. (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

63. gaia: Arnasa babesteko ekipoak, Suak itzaltzeko bitartekoak. (Suhiltzailearen gidaliburua, 2011ko ekaineko edizioa).

64. gaia: Bizkaiko geografia: orografia (basoak, ibaiak eta itsasbazterra), lurralde-antolaketa eta bide-sarea (udalerrak, industrialdeen kokapena, komunikazio-bideak eta suhiltzaile-etxeen eragin-eremua).